

GAIA: ABIAN DA IKASTURTE BERRIA • EKARPENA: SEME-ALABEN
BORTIZKERIA GURASOEKIKO • GALDEIDAZUE: ROSER BOIX • ITSAS
GELA • ATZEKO ATETIK: ANDER LIPUS

hh
hik hasi

131

4 EURO • 2008KO URRIA

EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

Alizia Stürtze

“ Hezkuntza
erabat
politizatu da,
eta zenbait
lekutan
Euskal
Herria bera
ere ezin da
aipatu”




ELKARRIZKETA

GURE HERRIAREN BILAKAERA MUNDUKO HISTORIAN KOKATUA



ATLAS HISTORIKOA EUSKAL HERRIA MUNDUAN



elkar

Euskal Herriko historiaren urrats nagusiak eskaintzen dira atlas honetan. Historiaurretik gaur egunera bitarteko hainbat gertakari ezagutzeko kontakizuna da. Ehunka argazki, marrazki eta mapaz gain, hainbat eskema eta jakingarri agertzen dira gure herriko historiaren ikuspegi orokorra eta argia izan dezagun. Atlasa DBHko gazteei zuzendua bada ere, Euskal Herriko historiaren ikuspegi orokor bat eduki nahi duen edozein pertsonarentzat egokia da.

**Laster kalean
historiari buruzko
"MURGIL"
galdera-erantzunen
jokoa**

aurkibidea



8
gaia

ABIAN DA IKASTURTE BERRIA

er ekarriko du? Erronka ugari ekarriko du 2008-2009 ikasturteak. Euskal curriculumak, hizkuntz ereduak, irakasleen falta, bainbat ikasgairekin dauden gorabeherak... Zerrendaren zati bat baino ez dira. Guztiak gai polemikoak izanik, datozen hila-etetan eztabaidarik izango dela pentsa liteke.



16
elkarrizketa

ALIZIA STÜRTZE

Hezkuntza erabat politizatu dela esan digu Alizia Stürtzek, eta Euskal Herria bera ezin dela aipatu, askotan. Euskal curriculumaren beharraz eta irakasleen formazio beharraz hitz egin digu istorialariak, baita gaitasunak garatzeak duen garrantziaz ere.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ABIAN DA IKASTURTE BERRIA

ZER EKARRIKO DU?

16 elkarrizketa

ALIZIA STÜRTZE

24 ekarpenak

Seme-alaben bortizkeria gurasoekiko

26 esperientziak

EJE proiektua

28 esperientziak

La Anunciata ikastetxea

30 hezkidetzak

Berdintasunerako jolastokia

32 galdeidazue

Nola ikasten dute haurrek eskola txikietan? Zer funtzio betetzen dute talde heterogeneoek ikasleen heziketan?

Roser Boix

35 berriak

40 nora joango gara?

ITSAS GELA Pasaian

Tarte batez marinel izateko aukera

42 Atzeko atetik

Ander Lipus

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Olatz Lasagabaster. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló eta Ainhoa Azpiroz. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANtza S.A.L. Azaleko irudia: Alizia Stürtze. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2008-IX-12). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

editoriala

urria

Ajeak astindu ezinik ikasturte berrian



Irakasleen beharrak, hizkuntza eredu bakarrak, Euskal Curriculum-a, euskal unibertsitea, hezkidetzeta... Ikasturte honetan ere bada non aritua.

Zabaldu da atea. Euskal Herrian milaka ikasleri eskola barrura sartzeko tenorea heldu zaie.

Ibilbide berri bat hasiko dugu denok, 2008-2009koa, hain zuzen. Ibilbide berri horretako helburuak, gutxi gorabehera, finkatuak dauzkaugu hezkuntza komunitatea osatzen dugun kideok.

Ezin esan, hala ere, aurreko ikasturteko ajeak atzean utzi ahal izan ditugunik: Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan behar baino irakasle gutxiagorekin hasi dira, geletan ikasleak pilatu behar izan dituztelarik; Nafarroa Garaian, eleaniztasuna lortzeko hizkuntza eredu bakarraren interpretazio murrizgarriarekin abiatu dira, gaztelania-ingelesa eta euskara-ingelesa ereduaren artean hautatu beharko dutelarik; eta, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian, berriz, besteen artean, EAeko Lege-biltzarrerako hauteskundearen ondorengo itunek Hezkuntza Sailaren norabidea eta orain arte-

ko politika alda dezakete.

Bestalde, bi urte beteko dira Oinarriko Hezkuntza Akordioa sinatu zenetik. Orduan, testu hark horrela esaten zuen: "Akordioak eztabaidarako abiapuntu izan nahi du. Molde zaharrak apurto, aurrera begira jarri, eta Euskal Herriaren hezkuntza bere herritarren beharretara egokitzea du xede. Egungo zatiketa sozialaren arriskuak gainditu (bi sare, heziketa eta aukera desberdinak...), hezkuntzaren dualizazioari neurria hartu eta biztanleen herri identitatea eta kohezioa lortu nahi du".

Gaurkotasan handiko asmoak, edonola ere, hezkuntza komunitatearen baitan konpondu gabeko auzien seinale. Egun mahai gainean ditugun hainbat gatazken eta hutsuneen gakoak ulertzeko baliagarria izan litezkeenak, gainera.

Etxe honetan, hamar urte egingo ditugu ikastaroak eta jardunaldiak antolatzen, euskaraz. Urte hauetan, 9

topaketetan eta 8 jardunaldietan, 241 ikastaro antolatu eta 6.500 jende presatatu ditugu euskaraz, bada zer bait!

Testuliburuak, ordenagailuak eta koadernoak estreinatu diren egun hauetan, arkatzak zorrotz eta liburuak azalez tatu berriak dauden honetan, begira diezaiegun zabaldu berri dugun ate horretatik sartu den haurrari eta gazteari.

Beharbada, haien begietan gutaz nahiko luketena edo behar luketena ikusten ikasiko bagenu, hezkuntzan dituzten eskubideen inguruan hausnartuko bagenu, eta horiek lehentsiko bagenitu, gaur egun askatzeko hain zailak diruditen korapiloak ez lirakeke hain estuak izango.

Euskal Hezkuntzaren gurpila beste bira bat osatzera abiatu da. Izan beza bira ardatza Euskal Herriko ikasleek dituzten hezkuntza eskubideak eta Euskal Herriak, herri gisa, dituen eskubideak. Ikasturte berri on guztioi!

kronika

Carlos Pérez-Nievas Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak kritika gogorak jaso ditu hezkuntza alorrean aurrekontu murrizketa izango dela iragarri eta gero. Nafarroa Baik salatu duenez, Pérez-Nievasek "ez du hezkuntza gizarteko oinarritzko zutabetzat hartzen". Izan ere, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua da murrizketa gehien jaso dituenetako bat, eta NaBaiko ordezkariak esan dute, krisi garaietan hezkuntzan murrizketak egin beharrean, inbertsioak areagotu behar direla. Murrizketen artean, larrienetakoa Euskarabidean egingo dela salatu dute. Izan ere, Nafarroako Gobernuak Euskarabidearen jardunerako aurrekontua % 18 murriztu du.



Ikasgela gehiago eta ikastetxe gehiago izango dira lau urtetan EAEko sare publikoan

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jakinarazi duenez, 2012. urtean egun baino 1.000 ikasgela gehiago izango ditu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako heziketa zentroyen sare publikoak, eta lau ikastetxe berri zabalduko dituzte. Hezkuntza Sailak ikastetxe publikoen azpiegiturak hobetzeko ezohiko plana aurkeztu du eta horrek jasotzen duenez, 700 milioi euroko aurrekontua izango da berrikuntzak eta hobekuntzak egiteko.

350 obra egingo dira guztira, eta aldaketok, 17.000 ikasle eskolatze-ko aukera emango dute. 700 milioi euro horietatik 566 milioi euro ikas-

tetxeak eraiki, berritu edota handitzeko erabiliko dituzte, eta gainerako dirua, 134 milioi euro, ekipamenduak hobetzeko eta egokitzeko erabiliko dira. Ikasgelak handitzeko eta berriak egiteko dirua bideratzeaz gain, ikastetxeko beste zenbait guneetan ere berrikuntzak egingo dituzte, hala nola, liburutegietan, jantokietan eta kirolguneetan. Gainera, hainbat ikastetxeren segurtasuna eta egokitasuna hobetzeko bidean, oztopo arkitektonikoak kentzeko lanak egingo dituzte.

Era berean, hainbat ikastetxe berri eraikiko dituzte datozen urteotan. Donostian, Goi Mailako Musika Zentroa zabalduko dute; Bilbon, ikus-entzunezkoetan espezializatutako zentroa eraikiko dute, eta Gernikan eta Bergaran Lanbide Heziketako ikastetxe bana zabalduko dute.

Bestalde, planak, informatika sistema programa berri bat eta eskolako arriskuak saihesteko plana ere jasotzen ditu.

Eta Hezkuntza Sailak jakinarazi duenez, 57,5 milioi euro bideratuko dituzte Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan eskaintzen duten udal eskoletan udaletxeek egiten dituzten inbertsioak laguntzera.

Asko eskatzea ote da nazioan nazioko hizkuntzan bizi nahi izatea?

Joxe Manuel Odriozola



Hezkuntza Sistema Nazionala eraikitzeko lanean jarraituko du EHBEk ikasturte berrian

Hezkuntza Sistema Nazionala aldarrikatzea, borrokatzea eta eraikitzea izango da aurten ere Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak izango duen erronka nagusia. Euskal curriculumari dagokionez, berriz, lana izango da aurten ere EHBEk azaldu duenez: joan den ekainean Kursaal jauregian aurkezpena egin ondoren, Euskal Herriko ikastetxeetan ekarpen fasearen bigarren itzulia egingo da ikasturte honetan, eta ikastetxeetan egingo diren eztabaidatan parte hartzeko deia egin dute. Bestalde, Unibertsitate propioa lortzera bidean, urrats atzeraezinak egin direla dio Euskal Herriak

Bere Eskolak, eta Euskal Unibertsitatea sortuko duen Fundazioa sortu ondoren, ikasturte honetan urrats berriak ematen jarraitzea espero dutela adierazteaz gain, Euskal Unibertsitatea egin egingo dela ziurtatu dute.

Azken asteetan zalaparta handia sortu duen hizkuntza ereduaren gainean, berriz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren “borondate zein ausardia falta” salatu dute, eta Nafarroan aurten martxan jarriko diren *Hello* haur eskolak eta TIL ereduak, Nafarroako Gobernuak eskolaren bidezko euskalduntzeari eginiko gerra deklarazioa direla azaldu dute.

Euskararen biziraupena nahiz garapena ziurta dadin, Euskal Herri osoan eskolaren bidezko euskalduntzea bermatu behar dela berretsi du EHBEk. Bidea zein den argi dute: Hezkuntza Sistema Nazionala. Eta horretan lagunduko duen bidelaguna Oinarrizko Hezkuntza Akordioa izango dela adierazi dute.

Hori guztia aintzat hartuta, Euskal Herriak Bere Eskolak hezkuntza eskubideen alde eta Hezkuntza Sistema Nazionalaren alde lanean jarraitzeko deia egin die herritarrei.

Lanbide Heziketako titulua lan esperientziaren bidez ematea aztertzen ari da Espainiako Gobernua. Ikasketak amaituta ez izan arren, azken hamar urteetan hiru urteko lan esperientzia izan dela frogatuta, Lanbide Heziketako titulua eskuratu ahal izatea aztertzen ari da Espainiako Gobernua, Lanbide Heziketaren erreformaren barnean. Asko dira titulu ofizialik gabe lanean diharduten profesionalak, baina titulurik ez izateak haien lan mugikortasuna eta lanpostu hobeak izateko aukerak mugatzen dituela ikusten dute. Titulua lortzeko hainbat frogak egin beharko dituzte langileek, eta 21 urtetik gorakoek izango dute agiriak jasotzeko aukera.

GAIA

Abian da ikasturte berria

Zer ekarriko ote du?





Galdera askorekin eta erantzun gutxirekin hasi da 2008-2009 ikasturtea Euskal Herrian. Euskal curriculumak, hizkuntza ereduen erreformak, finantzaketa, irakasleen falta, zenbait ikasgairekin dauden gora-beherak... Zerrenda luzea da. Urtero garaiotan izaten diren arazoak ditugu aurten ere, baina erronka garrantzitsuei egin beharko die aurre hasi berri dugun ikasturteak, eta lanik ez da faltako, ziur.

G

Erronka ugari eta onartze bidean diren legeak eta dekretuak

Amaitu da uda eta dagoeneko Euskal Herriko ikastetxe, irakasle, langile eta ikasle guztiak egunerokoa murgilduta daude. Denon ahotan ibili den opor osteko sindromea pasatuta, lanerako moduan dira guztiak. Aurtengoak lan dezente ekarriko du gainera, eta buruhausteren bat edo beste, ere bai, izan ere ikasturte hasiera honetan asko dira kolokan dauden gauzak: euskal curriculumaren kontrako helegitea, hizkuntza eredu bakarraren gaineko eztabaida, irakasleen falta eta horri aurre egin beharra...

Hegoaldean, 440.000 ikaslek baino gehiagok ekin diote ikasturte berriari. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan iaz baino 6.900 ikasle gehiago matrikulatu dira, horietatik % 49, 2 sare publikoan, eta % 50,8 itunpeko ikastetxeetan. Nafarroan berriz, gehiengoak publikoaren alde egin du. Haurreskolei dagokienez, aurten nabarmen egin du gora matrikulazioak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Lau hilabate eta bi urte bitarteko ia 4.000 haur hartu dituzte, horien erdia, gipuzkoarrak. Haurreskolen Partzuergoa 2003an jarri zen abian, 35 haurreskola zituen orduan eta gaur egun 166 dira. Lanbide Heziketan, berriz, % 16 egin dute gora matrikulazioek. Eta Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, Seaskak inoiz izan duen ikasle kopururik handiena izango du: 2.500 ikaslelik gora. Askok handitu da, gainera, ama eskoletan izena eman duen ikasle kopurua.

Euskal Herriko zatiketa administrazioak, egoera eta erronka ezberdinak ekarriko dizkigu leku batean zein bestean.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Hizkuntza eredu bakarrarekin gertatzen den moduan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatu dueneuska curriculumarekin zer gertatuko ote den ikuskizun dago. Horren kontrako

helegitea jarri zuen PPK, curriculumak euskara eskolako hizkuntza nagusi gisa ezartzen duelako, eta Espainiako Hezkuntza Ministerioak ere gauza bera egin zuen, Euskal Herriari buruz errealitate politiko gisa hitz egiten duelako.

Hezkuntza Sailak, bestalde, onartzeko ditu Batxilergoa eta Haur Hezkuntza arautuko duten dekretuak. Batxilergoko ikasketak berrantolatuko dituen dekretuak derrigorrezko bi ikasgai gehiago ezarri ditu: mundu garaikiderako zientziak, eta filosofia eta hiritartasuna. Gainera, euskara hartzen du oinarritzko hizkuntza gisa. Horrez gain, lehen mailatik bigarren mailara pasatzeko aukera izango dute ikasleek lau ikasgai gaituta gabe eduki arren.

Espainiako Gobernuak abian jarri duen selektibitate dekretu berria kritikatu du, bestalde, Hezkuntza Sailak. Jada gaituta dagoen azterketa-eredua ezartzen duela salatu dute, eta ez dituela gaitasunak kontuan hartzen.

Irakasleei dagokionez, 340 irakasle izango dute urte sabatikoa aurten, aurretik lau urtez soldataren % 84 jaso ondoren. Hamabi hilabeteko epean, soldata bera jasoko dute.

Aipatzekoa da, sare publikoko irakasleen batez besteko adina 45 urtekoa dela eta milatik gora direla 58 eta 60 urte bitartekoak. Euskadiko Eskola Kontseiluak egindako txostenaren arabera, hamar urte barru irakasle falta izango da; sare publikoa eta sare pribatua kontuan hartuta, urtero 600 erretiro izango dira, eta etorkizunean, 1.000tik gorakoa ere izan daiteke erretiro kopurua.

Nafarroa Garaia

Nafarroan ere, hizkuntza ereduen gaineko eztabaida pil-pilean dago. Bestetik, aurten murrizketak egingo ditu Nafarroako Gobernuak aurrekontuetan, eta Hezkuntza Departamentuak 5,8 milioi euro inbertituko ditu 0-3 urteko irakaskuntza zikloan, iaz baino

Tokian tokiko egoera

Hegoaldeko opor egunak ■
Iparraldeko opor egunak ■

| IRAILA | URRIA | AZAROA | ABENDUA | URTARRILA | OTSAILA | MARTXOA | APIRILA | MAIATZA | EKAINA | UZTAILA | ABUZTUA |
|--------|-------|--------|---------|-----------|---------|---------|---------|---------|--------|---------|---------|
| 1 A | 1 A | 1 L | 1 A | 1 O | 1 I | 1 I | 1 A | 1 O | 1 A | 1 A | 1 L |
| 2 A | 2 O | 2 I | 2 A | 2 O | 2 A | 2 A | 2 O | 2 L | 2 A | 2 O | 2 I |
| 3 A | 3 O | 3 A | 3 A | 3 L | 3 A | 3 A | 3 O | 3 I | 3 A | 3 O | 3 A |
| 4 O | 4 L | 4 A | 4 O | 4 I | 4 A | 4 A | 4 L | 4 A | 4 O | 4 L | 4 A |
| 5 O | 5 I | 5 A | 5 O | 5 A | 5 O | 5 O | 5 I | 5 A | 5 O | 5 I | 5 A |
| 6 L | 6 A | 6 O | 6 L | 6 A | 6 O | 6 O | 6 A | 6 A | 6 L | 6 A | 6 O |
| 7 I | 7 A | 7 O | 7 I | 7 A | 7 L | 7 L | 7 A | 7 O | 7 I | 7 A | 7 O |
| 8 A | 8 A | 8 L | 8 A | 8 O | 8 I | 8 I | 8 A | 8 O | 8 A | 8 A | 8 L |
| 9 A | 9 O | 9 I | 9 A | 9 O | 9 A | 9 A | 9 O | 9 L | 9 A | 9 O | 9 I |
| 10 A | 10 O | 10 A | 10 A | 10 L | 10 A | 10 A | 10 O | 10 I | 10 A | 10 O | 10 A |
| 11 O | 11 L | 11 A | 11 O | 11 I | 11 A | 11 A | 11 L | 11 A | 11 O | 11 L | 11 A |
| 12 O | 12 I | 12 A | 12 O | 12 A | 12 O | 12 O | 12 I | 12 A | 12 O | 12 I | 12 A |
| 13 L | 13 A | 13 O | 13 L | 13 A | 13 O | 13 O | 13 A | 13 A | 13 L | 13 A | 13 O |
| 14 I | 14 A | 14 O | 14 I | 14 A | 14 L | 14 L | 14 A | 14 O | 14 I | 14 A | 14 O |
| 15 A | 15 A | 15 L | 15 A | 15 O | 15 I | 15 I | 15 A | 15 O | 15 A | 15 A | 15 L |
| 16 A | 16 O | 16 I | 16 A | 16 O | 16 A | 16 A | 16 O | 16 L | 16 A | 16 O | 16 I |
| 17 A | 17 O | 17 A | 17 A | 17 L | 17 A | 17 A | 17 O | 17 I | 17 A | 17 O | 17 A |
| 18 O | 18 L | 18 A | 18 O | 18 I | 18 A | 18 A | 18 L | 18 A | 18 O | 18 L | 18 A |
| 19 O | 19 I | 19 A | 19 O | 19 A | 19 O | 19 O | 19 I | 19 A | 19 O | 19 I | 19 A |
| 20 L | 20 A | 20 O | 20 L | 20 A | 20 O | 20 O | 20 A | 20 A | 20 L | 20 A | 20 O |
| 21 I | 21 A | 21 O | 21 I | 21 A | 21 L | 21 L | 21 A | 21 O | 21 I | 21 A | 21 O |
| 22 A | 22 A | 22 L | 22 A | 22 O | 22 I | 22 I | 22 A | 22 O | 22 A | 22 A | 22 L |
| 23 A | 23 O | 23 I | 23 A | 23 O | 23 A | 23 A | 23 O | 23 L | 23 A | 23 O | 23 I |
| 24 A | 24 O | 24 A | 24 A | 24 L | 24 A | 24 A | 24 O | 24 I | 24 A | 24 O | 24 A |
| 25 O | 25 L | 25 A | 25 O | 25 I | 25 A | 25 A | 25 L | 25 A | 25 O | 25 L | 25 A |
| 26 O | 26 I | 26 A | 26 O | 26 A | 26 O | 26 O | 26 I | 26 A | 26 O | 26 I | 26 A |
| 27 L | 27 A | 27 O | 27 L | 27 A | 27 O | 27 O | 27 A | 27 A | 27 L | 27 A | 27 O |
| 28 I | 28 A | 28 O | 28 I | 28 A | 28 L | 28 L | 28 A | 28 O | 28 I | 28 A | 28 O |
| 29 A | 29 A | 29 L | 29 A | 29 O | 29 I | 29 I | 29 A | 29 O | 29 A | 29 A | 29 L |
| 30 A | 30 O | 30 I | 30 A | 30 O | 30 A | 30 A | 30 O | 30 L | 30 A | 30 O | 30 I |
| 31 O | 31 O | 31 A | 31 A | 31 L | 31 A | 31 A | 31 I | 31 I | 31 O | 31 O | 31 A |

2,2 milioi gehiago. Aurrekontuetan iragarririkoa baino ia bi milioi euro gutxiagokoa izango da, beraz, aurrekontua. Carlos Pérez-Nievas kontseilariak krisi ekonomikoa egin du horren erantzule.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa

Frantziako Hezkuntza ministerioak eta Seaskak, oinarrizko akordioa hitzartu dute. Orain, hezkuntza ministroak eta Bordeleko Errektoretzak berretsi behar dute akordio hori. Seaskak hitzarmenari buruzko xehetasunik eman ez duen arren, lau oinarri dituela aurreratu dute: lehen mailako irakasle postuak esleitzeko irizpideak, bigarren mailako irakasleak eta ardura orduak esleitzeko irizpideak, ikastola berriak irekitzeko protokoloa, eta azterketak. Baxoari dagokionez, berriz, euskara-

ren maila neurtzeko azterketak eta Frantziako Hezkuntzak ezarritako azterketak nola burutu aztertu dute bi aldeek.

Ospakizun urtea izango da hau Seaskarentzat, 40 urte beteko baititu. Aurten ikastola berria ireki du Arberoan; 26.a. Orain, Itsaso-Luhuso eskualdean eta Bidarten, ikastola irekitzeko aukera azterzen ari dira. 22 lehen maila eta ama-eskola, hiru kolegio eta lizeo bakarra ditu, beraz, Seaskak, oraingoz. Zenbait ikastoletan berritze lanak egin behar dituzte; adibidez, Hazparneko eta Kanboko ikastolak txiki geratu dira eta handitze lanak aurten egin nahi dituzte. Bestalde, Angelun lehen mailako lehen urteko gela zabaldu da, eta gauza bera egin dute Hiriburun eta Alotzen ere.

Baina bada beste alderik ere, izan ere, Paueko Akademia Ikuskaritzak iragarri zuen lanpostu murrizketari eutsi-

ko dio, eta ikasle kopuruak behera egingo ez duen arren, irakasle gutxiago izango da ikasturte honetan. Beraz, Seaskak bere gain hartu behar izan ditu Frantziako Hezkuntza Ministerioak lehen mailarako ukatu dizkion 14 irakasleak.

Aurten berrikuntzak izango dira, bestalde: tutoretza eskolak izango dira, eta ikasteko zailtasunak dituzten ikasleek, opor garaian laguntzarako zerbitzua izango dute. Irakasleen asteko eskola ordu kopurua 26tik 24ra jaitziko da, zerbitzu hori betetzeko. Irakasleen greba egunetan, bestalde, herriko etxeek gutxieneko zerbitzuak jarri beharko dituzte, haurren harrera bermatzeko. Eta, era berean, Hezkuntza ministroak irailan aurkeztu duen eskola programa berrituak frantsesaren eta matematikaren ikaskuntza indartzea aurreikus-ten du.



Hizkuntz ereduak

Zalantzarik gabe, ikasturte honetan zeresana emango dutenak hizkuntza ereduak dira. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak esku artean duen *Euskadin hizkuntza ofizialak eta atzerrikoak ikasteko, irakasteko eta ebaluatzeko markoaren lege proiektua* ezaguna da dagoeneko.

Onartuko balitz, irakaskuntza ez-unibertsitarioan jarduten duten ikastetxe publiko nahiz pribatueta aplikatuko litzateke.

Eskolan, euskara ohiko adierazpen-hizkuntza gisa erabili behar dela dio egitasmoak, eta euskarari lehentasuna eman behar zaiola eskolaz kanpoko irakaskuntzan eta administrazio jardueretan. Euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak izanik, ikasle guztiek



Zer eredutan matrikulatu dira ikasleak?

18 urte arteko ikasleen % 57,5ek D ereduan egingo diuzte ikasketak **Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan**. Gipuzkoan egin da matrikulazio gehien D ereduan, ikasleen % 71,7. % 10,4k A eredia aukeratu du, eta B eredia %17,9k. Bizkaian, berriz, % 53,6k aukeratu du D eredia, % 22,9k A eredia eta % 23,6k B eredia. Eta Araban, % 37,6k D ereduan ikasiko du, % 34,3k B ereduan eta % 28,1ek A ereduan.

Nafarroa Garaian, hiru ikaslelik batek euskara hutsezko heziketa izango du. Oraindik gehien aukeratzeko direnak izan arren, aurtengo behera egin dute A eta G ereduak; aurreko ikasturtean baino %10 gutxiago aukeratu dira. *British* ereduan ere behera egin dute izen emateak.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan dauden 145 eskola publikoetatik 55ek irakaskuntza elebiduna eskaintzen dute, eta 55 zentro pribatuetatik, 23k. Horri, Seaskak dituen ikastolak eta kolegioak gehituz gero, 220 baino gehiago dira ikastetxeak, eta ehunek eskaintzen dute euskaraz ikasteko aukera, maila batean zein bestean. Sare publiko elebidunean 5.000 ikaslelik gora arituko dira Paueko Akademia Ikuskaritzak emandako datuen arabera, eta denara, 47.000 ikasle arituko dira Pirinio Atlantikoetako departamenduan.

Hizkuntz ereduak

horiek behar bezala ikasteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea dutela dio, eta atzerriko hizkuntzak jakitea funtsezkoa dela gizarte gero eta irekiagoan eta globalagoan jarduteko.

Eusko Jaurlaritzan hezkuntza alorreko eskumena duen sailak zehaztuko ditu hezkuntza etapa guztien curriculum arautzeko araudian, ikasleek etapa bakoitzean euskaraz, gaztelanian eta atzerriko hizkuntzan kreditatu beharreko ezagutza-mailak, baina egitasmoak maila batzuk zehazten ditu:

Lehen Hezkuntzan, gutxieneko ezagutza mailak hauek izango dira:

a) Bi hizkuntza ofizialak behar bezala ezagutzea eta erabiltzea, eta irakurtzeko ohiturak hartzea.

b) Gutxienez atzerriko hizkuntza batean mezu sinpleak adierazteko eta ulertzeko eta eguneroko egoeretan moldatzeko oinarrizko komunikazio-gaitasuna eskuratzea.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, gutxieneko ezagutza mailak hauek izango dira:

a) Bi hizkuntza ofizialetan, testu eta mezu konplexuak ahoz eta idatziz behar bezala ulertzea eta adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta ikasten hastea.

b) Atzerriko hizkuntza batean edo gehiago egokiro ulertzea eta hitz egitea.

Batxilergoan, gutxieneko ezagutza mailak hauek izango dira:

a) Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ahoz zein idatziz menderatzea.

b) Atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan erraztasunez eta zuzen mintzatzea.

c) Batxilergoan ikasitako atzerriko hizkuntzaren ezagutza-mailak, hizkuntza-eskola ofizialetako erdiko mai-

laren ikasketen parekoa izan beharko du.

Gutxienez curriculum-arlo eta irakasgai ez linguistikoen % 60 euskaraz eman behar dela zehazten du egitasmoak, eta ikastetxeek autonomia izango dutela gainerako arloak eta ikasgaiak zer hizkuntzatan emango dituzten erabakitzeko. Dena den, Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaia derrigorrez euskaraz eman beharko da, eta Lengua y Literatura castellana, nahitaez

gaztelaniaz.

Ikastetxeek hizkuntza proiektua egin beharko dute, eta horretan, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuan adierazitako irizpideak garatu beharko dituzte. Hizkuntza proiektuan hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilerarekin lotutako alderdi guztien plangintza zehaztu behar da, eta legeak eskatutako ezagutza-mailak eta hizkuntzak erabiltzeko eskubidea bermatzeko zer neurri hartuko diren adierazi behar da.



GAIA

Abian da ikasturte berria
Zer ekarriko ote du?



Bestalde, kanpo ebaluazioak egongo dira ikasleen hizkuntza mailak neurtzeko. Lehen Hezkuntzako laugarren eta seigarren mailako ikasleei ebaluazioa egingo zaie, eta baita DBHko bigarren eta laugarren mailakoei ere. Ebaluazio horiek ez dute eraginik izango ikasleen ikasketa-espedientean eta ISEI-IVEI erakundea arduratuko da horiek egiteaz.

Irakasleei dagokienez, berriz, beren jardunean aritzeko eta eskolak euskaraz nahiz gaztelaniaz erraztasunez emateko gaitasun nahikoa izan behariko dute. Horretarako, IRALE programa egokituko dute. Era berean, hezkuntza esparruan aritzen diren eta irakasleak ez diren langileak euskalduntzeko baliabideak arautuko dituzte.

Horiek dira lege proiektuak jasotzen dituen alderdirik aipagarrienak. 2007ko martxoan aurkeztu zuen egitasmoa Eusko Lagebiltzarrean Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak, baina aurreko asteetan bildu dira Hezkuntza Saileko ordezkariak alderdi politiko, eragile eta sindikatuekin ekarpenak eta zuzenketak biltzeko, eta datozen asteetan egingo dute bozketa Eusko Legebiltzarrean. Legebiltzarrak lege proiektua onetsiz gero, hurrengo ikasturtean aplikatzen hasiko litzateke Haur Hezkuntzako maila guztietan eta Lehen Hezkuntzako lehen mailan. Hurrengo ikasturtean, Lehen Hezkuntzako bigarren mailan aplikatuko litzateke, eta horrela jarraituko lukete erabat ezarri arte.

Lege proiektuak hainbat kritika jasotzen dituen dagoeneko, batez ere PP eta PSE-EE alderdien aldetik. Inposiziotzat hartu dute hasieratik, eta onartezina dela esan dute. Tontxu Camposek egindako egitasmoa "inposatua, sektarioa eta erradikala" dela esan dute PSE-EEtik.



Hezkuntzak ezin du euskararen mende egon PSE-EEren iritziz eta proiektuaren helburu bakarra euskararen ezagutza dela eta populazioaren % 80k ama hizkuntza gaztelania duela kontuan hartzen ez duela esan dute. Euskara eta gaztelania lehentasunezko hizkuntzak direla ziurtatu beharke litzateke haien ustez, eta ingelesaren erabilera bermatu beharke litzateke.

Baina ez dira desadostasun bakarrik izan. Hirukoaren barnean ere tirabirak izan dira gaiaren harira. PNVk eta EBk neurri berriak pixkanaka aplikatzearen aldekoak dira eta PNV, ereduak aldatu aurretik, probaren bat egitearen aldekoa da.

Guraso batzuek ere bat egin dute lege proiektu berriaren aurka. 2.000 gu-

raso biltzen ditu Hizkuntzaren Aukera Askatasunaren Aldeko Plataformak, eta eredu bakarrik seme-alabek ikasiko duten hizkuntza erabakitzeko esku bidea urratzen duela salatzen dute.

Nafarroan, berriz, TIL eredu bakarra (hizkuntza tratamendu integrala, alegia) da indarrean jarriko dena. Horrek bi aukera emango ditu: erdia ingelesez izango da, eta bestea erdia, norberak aukeratzen duen hizkuntzan: euskaraz edo gaztelaniaz. Carlos Pérez-Nievas hezkuntza kontseilariak esan du D ereduak desagertu behar duela, hilda dagoelako, eta G eta A ereduak ere desagertu behar dutela. Bien bitartean, hainbat hezkuntza eragilek eredu berriaren gaineko informazio falta salatu dute.

Hainbat datu

Gastuei aurre egin nahian

Familiak diru asko xahutzen dute eskolara itzultzearekin. Zenbaki dantza handia da, baina handik eta hemendik eskuratutako datuen arabera, 500 eurotik 2.000 euro bitarteko gastua izaten dute familiak. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan batez bestekoa 942 eurokoa da, eta Nafarroan, 893 eurokoa.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako familiak, berriz, ikasturte hasieran dirulaguntza jasotzen dute sei urtetik gorako haur bakoitzeko. Aurten 272,59 eurokoa izan da zenbatekoa. Gainera, Frantziako estatuko guraso elkarteek eta saltoki handiek hitzarmena sinatu dute saltokiek eskolako materiala prezio apaletan saltzeko.

Eskola liburuak doan

Nafarroako Gobernuak liburuen doakotasunaren dekretua onartu zuen abuztuan, eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei eskola liburuak doan ematen hasi dira. Helburua 2011. urterako denek doako liburuak izatea da. Ikastetxeek zuzenean erosiko dituzte liburuak, edo gurasoei bonuak emango dizkiete haiek erosteko. Liburuak lau urtez erabiltzeko moduan zaindu beharko dituzte ikasleek, eta horiek apurtuz edo galduz gero, gurasoek liburu berriak ordaindu beharko dituzte. Lau urte pasatzean, liburu guztiak berrituko dituzte.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatuta, Lehen Hezkuntzako lehen zikloan liburu mailegua egingo dute. Gurasoek liburuen laurdena ordainduko dute eta ikasturte bukaeran dirua itzuliko zaie baldin eta ikasleek liburuak galtzen edo hondatzen ez badituzte. Kasu horretan, liburua osorik ordaindu beharko dute. Araban berriz, eskola liburuak erosteko laguntzak ematen ditu Foru Aldundiak.

Jangelak


Zenbait ikastetxetako jangela zerbitzuarekin ere, gorabeherak dituzte. EHIGE-k (Euskal Herriko Gurasoen Elkarte) jakinarazi duenez, berezko jangela izatera bideratutako dirulaguntzak kendu egin ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzak Sailak eta, esan dutenez, horrek 2.500 ikaslerengan du eragina. Eusko Jaurlaritzak erantzun egin dio kritika horri, eta "ikastetxe publiko apur batzuetako gurasoek jangelen auzia dela eta duten jokabidea" salatu du. Eusko Jaurlaritzak azaldu duenez, zortzi baino ez dira zeharkako kudeaketa egiten duten ikastetxeak, eta ez dute uste onargarria denik egoitza publikoan eta administrazioaren sukaldariekin gestio pribatua egiten jarraitzea.

Opor osteko sindromea

Orain arte helduen arazo gisa aurkeztu zaiguna, haurren arazo ere badela zabaldu da aurten, hau da, haurrek ere, opor osteko sindromea dutela. Sindrome horren sintomen artean nekea, gose eza, muskuluetako minak, tristura... egon litezke. Hori dela eta, eskolara hasi baino lauzpabost egun lehenago eskolako ordutegiak errespetatzen hasia eta horietara ohitzen joatea gomendatzen dute adituek.

ELHUYAR ikaslearen hiztegia

Dagoeneko kalean!



26€



CD-ROM eta guzti!

Argitalpen berritua

28.100 hiztegi-unitate definituta • 23.300 sarrera • 39.300 adiera edo definizio • 19.000 adibide • 8.100 sinonimo eta antonimo • 4.800 azpisarrera • 1.025 ohar didaktiko • 330 hiztegi-unitate, irudiz hornituak • 125 hiztegi-




ELHUYAR
ikazlearen hiztegia

alizia stürtze

ELKARRIZKETA

Historialaria

// Hezkuntza erabat politizatu da,
eta zenbait lekutan Euskal Herria
bera ere ezin da aipatu //



alizia stürtze

E

// **Konpetentziak garatzea, beharrezkoa da, taldean lan egiten ikasi behar da, adibidez, eta ez soilik lehiakorra izaten. Nik uste dut AEBko eredia ezartzen ari dela; konpetentzia esaten denean, konpetentzia indibiduala ulertzen da, eta txikitatik lehiakortasun horretan murgilduta bizitzea. Baina, horrekin batera, ikasleek laguntzen eta parte hartzen ikasi beharko luketela pentsatzen dut.**

//

Euskal curriculumaren beharraz behin baino gehiagotan mintzatu da Alizia Stürtze, eta itxaropenez hartzen du martxan dagoen proiektua, baina oraindik lan handia dago egiteko bere ustez. Izan ere, Euskal Herria aipatze hutsa zentsurarako arrazoia da maiz gaur egun, eta hori oso ongi ezagutzen du egun testugintzan eta material osagarriak egiten aritzen den emakume honek. Gaiak argitaletxeko arduraduna da eta euskal gaiak lantzen dituzte, batez ere euren lanetan. Historialaria izanik, ikasleei geure historia irakasteak duen garrantziaz aritu gara Stürtzerekin, eta garai batean genituen balioak, mundu ikuskera eta gizarte antolaketa ezagutzea beharrezkoa izango litzatekeela aipatu digu. Denbora tarte laburrean, aldaketa ugari bizi izan ditugu, eta presaka eta abiadura bizi garen garaiotan, euskaldunok berezko ditugun balioak berreskuratu beharko genituzkeela uste du Alizia Stürtzek. Horrek, euskararekin batera, geure herriaren inguruan beselako ikuspegia emango liguke eta herri nortasuna indartzen lagunduko luke.



Irakaskuntzan aritu zara hainbat urtez irakasle moduan, eta gaur egun testugintzan eta material osagarriak egiten aritzen zara. Nola ikusten duzu irakaskuntzaren egoera Euskal Herrian?

Kezkagarria iruditzen zait. Alde batetik, lekuaren arabera beti ere, baina badirudi irakasleek energia gehien diziplina mantentzen eman behar dutela. Uste dut irakaslearen figurak aurretik zuen errespetua galdu duela, eta horrek arazoak ekartzen dituela. Bestetik, uste dut, azken belaunaldietan sortu diren irakasleek ez dutela formazio nahikorik. Hori ondoren ikasgelan transmititzen da, ikasleen maila kulturala (eta hori onartu egiten dute irakasle askok) gero eta baxuagoa da, eta exigentzia maila ere, gero eta txikiagoa da. Eta orain, Unibertsitatean sartuko diren alaketak direla eta, gainera, joera eza gutza teknikoak izatea da, esate baterako, informatika edota ingelesa jakitea. Hau da, lehiakorra izatea, baina pertsona osoa eta kultura izatea alde batera geratzen da. Gaitasunak garatzea, konpetentziak garatzea, beharrezkoa da, taldean lan egiten ikasi behar da, adibidez, eta ez soilik lehiakorra izaten. Nik uste dut AEBko eredia ezartzen ari dela; konpetentzia esaten denean, konpetentzia indibiduala ulertzen da, eta txikitatik lehiakortasun horretan murgilduta bizitzea. Baina, horrekin batera, ikasleek laguntzen eta parte hartzen ikasi beharko luketela pentsatzen dut. Alde horretatik, ikusten dut, irakaslearen papera une honetan nahiko frustrantea dela.

Euskal curriculumaren beharra behin baino gehiagotan aipatu



duzu. Nola ikusten duzu gai hori?

Bada, uste dut, euskal curriculum berri horretan, ofizialean, Euskal Herria desagertu egiten dela. Beste curriculum, bigarren mailan geratzen da eta oraindik ez da garatu. Ofizialean, euskara da garatzen den bakarra, euskalduntasuna ez baita behar bezala garatzen; horren arabera, garrantzitsua goa da, esate baterako, ingelesajakitea, eta uste dut euskaldun izateari garrantzia kentzen zaiola, erabat. Euskal curriculumaren izena hartzen du hemen egin delako, baina nik uste dut puntu puntu jarraitzen duela European eta Madrilen erabaki dena. Ez dut aldaketa handirik ikusten batetik bestera. Eta gu, testugintzan aritzen garen aldetik, Eusko Jaurlaritzan materiala aurkezten dugunean, curriculum ofizialaren araberrako materiala egin behar dugu.

Euskal curriculumaren aurkezpen ofiziala egin zen joan den ekainean. Euskal Herriko Ikastolen

Konfederazioak, Udalbiltzak, Sortzen-Ikasbatuazek, Kristau Eskolek eta zenbait hezkuntza eta herri eragilek sustatutako egitasmoa da, bost urteko jardunaren fruitua... Zer iritzi duzu curriculum horri buruz, prozesu horri buruz?

Ez du zerikusirik ofizialarekin, jakina. Prozesu hori aurrera eraman behar da, baina ez da erraza izango. Bide horretan, ikastetxeetan horren inguruko ikastaroak antolatzen joatea ideia ona iruditu zitzaidan. Izan ere, lehen aipatu dudan moduan, irakasleek oso formazio gutxi dutela ikusten da eta Euskal Herriaren inguruko informaziorik, ikastoletan ere, aspaldi ez dela jaso. Horretan aldaketa nabarmena gertatu da. Nire seme zaharrenak, esaterako, 34 urte ditu, eta ikastolan Euskal Herriko historia eman zuten, gogoratzen naiz Elkarrek ateratako liburuak zituela; bigarren semea, berriz, sei urte gazteagoa da, eta horrek ez zuen eman Euskal He-

rriko historiarik. Orain, gazteek, hitzaldiak eskatzen dizkigutenean, Euskal Herriko historia eskatzen dute, herriari buruz ez baitakite ezer, eta hori kezkatzeko modukoa da. Irakasle berriek ere ez dute informazio hori jaso. Eta Euskal Herria alde horretatik desagiten ari da; kultura mantentzen ez badugu eta garatzen ez badugu, Euskal Herrian biziko gara, baina horrek ez du ezer esan nahi izango. Horregatik uste dut ideia ona dela Euskal Herriaren inguruko ikastaroak eskaintzeko lekuren bat antolatzea, irakasleek informazioa jaso dezaten, horren inguruko materialak sor daitezela...

Hain zuzen ere, curriculum ofizialean bost gaitasun jasotzen dira. Horietako bat norbera izaten ikastea da, eta norbera izatearen bidean euskal herritar eta euskaldun izateak garrantzia dute. Horretarako, geure nortasuna garatzeko, historia ezagutzea eta



E

// **Eta Euskal Herria alde horretatik desegiten ari da; kultura mantentzen ez badugu eta garatzen ez badugu, Euskal Herrian biziko gara, baina horrek ez du ezer esan nahi izango. Horregatik uste dut ideia ona dela Euskal Herriaren inguruko ikastaroak eskaintzeko lekuren bat antolatzea, irakasleek informazioa jaso dezaten, horren inguruko materialak sor daitezen...**

//

lantzea beharrezkoa da. Nola irakatsi gure historia ikasleei?

Duela urte batzuetatik hona gain-behera prozesu batean sartu gara eta lehen ematen ziren gauzak, gaur egun ezin dira eman, berehala aurrean izango dituzulako PP edo PSOE, edo edonor, zenbait gauza onartezinak direla esanaz (arrazakeria dela, "terrorista" izaten irakasten dela...). Hezkuntza erabat politizatu da, eta zenbait lekutan Euskal Herria bera ere ezin da aipatu. EAJk ere gai horietan etengabe egiten du atzera eta Euskal Herria, ondorioz, ez da agertu ere egiten.

Eta zer egin beharko litzateke horren aurrean?

Pentsatzen dut interesa duen jendea badela. Beharrezkoa da jende hori biltzen joatea eta gaia lantzea, proiektuak aurrera egin dezan. Ikastaro batzuk antola daitezke irakasleek informazio gehiago izan dezaten, eta, era horretan, agian, zenbait gai sartuko dituzte euren ikasgai-zerrendetan. Gaur egun, ikasliburuak erabiltzen dira, eta badakigu zer den hor agertzen dena. Irakasle batek, zenbait pauso eman ditzake bere kabuz, bere ekimenez, baina nik uste dut mugimendu bat sortu behar dela, curriculum ofizialak ezartzen duenaz gain beste zerbait eskaintzeko; eta eskaintzen duzun neurrian, indarra egiten duzun neurrian, gauzak aldatzen hasten dira. Proiektu zehatzen bidez pausoak ematen joan behar du.

Formazioa izango litzateke prozesu horren lehen urratsa, beraz.

Bai. Askotan, informazioa da irakasleei falta zaiena, eta hortik abiatuta,

jarraipena izango duen prozesua antola daiteke. Izan ere, garrantzia dutenak soilik teknologia berriak eta ingelesa badira, ikastola izango da, baina ikastola hitzak berak zentzua galduko du nire ustez. Beste alternatiba bat gorpuzten joan behar dugu, baina bidea ez da erraza. Guk urteak daramatzagu materialgintzan, eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik nolako zentsura dagoen ikusten dugu. Horrek, aurretik autozentsura egitera garamatza ezinbestean, eta, hala ere, hainbat gauza ez dizkigute onartzen. Izututa daude, badakitelako PP-koren bat, beharbada, arrazismoaz hitz egiten hasiko dela.

Baduzu buruan kasuren bat? Atzera botatzea pentsaezina izan zitekeen adibideren bat, baina hala ere, atzera bota dutena?

Askotan, askotan gertatu zaigu. Espainiako historia eman behar da, adibidez, eta Espainiako edo Frantziako historia guk ez dugu inoiz idatziko, ez baita gure historia, eta idaztekotan, Euskal Herriko ikuspuntutik egingo genuke, Katalunian egiten duten moduan. Gaur egun hori egitea ezinezkoa da. Eta, nola idatziko dut nik haiek nahi duten liburua? Lehen hainbat interpretazio historiko eskaintzeko aukera bazen; orain, eskaintza bakarra dago eta ezin da hortik atera. Hori zentsura da. Nik badakit ezin dudala Euskal Herriko historiari buruz nahi nukeen liburua idatzi eta beharrezkoa litzateke, instituzioetatik kanpo material alternatibo horiek antolatzea.

Beraz, testugintzaren demokratizazioa behar da...

Bai, nik uste dut baietz. UZEIn aritzen nintzenean, B.B.B.-rako historia liburua egin genuen, eta orduan, Espainiako estatuan baziren nahiko marxistak ziren ikasmaterial batzuk. Hori, gaur egun, pentsaezina da. Eta Euskal Herriaren inguruan zer esanik ez: kontu handiz ibili behar duzu, esate baterako, genetika kontuak aipatzen direnean, arraza kontuak aipatzen direnean, historiako zenbait pasarte aipatzen di-

reanean... Dena folklore hutsa bihurtzen ari da, mamirik gabeko zerbait; pilota, kirolak... horrelakoetan geratzen


ari gara eta horren adibide gisa, ETB-1 telebista katea ikusi besterik ez dago; lotsagarria da. Euskara, oro har, biga-

rren mailakotzat hartzen da, sinboliko ki hartzen da, eta geure erroak, geure historia eta geure kultura berreskuratu beharko genituzke.

Gure herriaren historian emakumeak garrantzi handia izan du, eta hori ere ez da erakusten eskolan. Azalduko al zeniguke zein izan den paper hori eta nola helarazi dakiekeen hori ikasle gazteei?

Sistema oso zaharra da eta mendeetan zehar endekatzen joan da, baina nik uste dut sistema hori erakusteak, gizartea beste era batera antola daitekeela ikusteko balio duela; sistema berdintzaileagoa antola daitekeela, eta bagenituela naturarekiko balio batzuk, balio solidarioagoak eta berdintzaleagoak. Bestetik, sistema hori erakusteak, gauzak zergatik eta nola endekatzaren diren azaltzeko eta Euskal Herriak berezkoak zituen hainbat elementu (berez onak eta baligarriak izan zitezkeenak) zergatik galdu dituen (edo galtzen joan den) azaltzeko balio du. Eta garbi izan behar dugu matriarkalismoaz ari garenean, ez dugula esaten emakumea gizonaren gainetik zegoenik, baizik eta bi sexuen arteko nola-halako berdintasun bat bazegoela; berdintasuna ezberdintasunean. Eta posible dela horrelako zerbait gertatzea; ez berdina izatea, desberdina izatea, baina, era berean, maila berean egotea. Etxearen garrantzia ere azpimarratzekoa da; etxea bizitzeko lekua, lan egiteko lekua, errituak egiteko lekua, hildakoekin harremana izateko lekua zen, eta hor, emakumearen papera lehen mailakoa zen. Ikasleei hizkuntzaren bidez azal dakieke hori guztia, hizkuntzak hori guztia islatzen baitu; hitanoa aipatuta, generoen arteko bereizketarik ez dagoela adieraziz... Eta ahaidetasun harremanak ere hor ditugu, senide bakoitzak zuen funtzioa, toponimia, geure sinboloak... Mariri buruz hitz egin dezakegu, adibidez, eta horren atzean zer dagoen azaldu.

Beraz, gaia hainbat arlotatik bidera daiteke; euskararen aldetik, toponimiaren aldetik, genero aldetik, lanaren



alizia stürtze

E

// Garbi izan behar dugu matriarkalismoaz ari garenean, ez dugula esaten emakumea gizonaren gainetik zegoenik, baizik eta bi sexuen arteko nola-halako berdintasun bat bazegoela; berdintasuna ezberdintasunean. Eta posible dela horrelako zerbait gertatzea; ez berdinak izatea, desberdinak izatea, baina, era berean, maila berean egotea.

//

inguruan Euskal Herrian zegoen ikuspuntuaren aldetik... Emakumearen lana beste era batera ikusten zen; garrantzia ematen zitzaion etxearen parte zelako. Espainian eta Frantzian sistema feudala ezarri zen, sistema oso hierarkikoa zen, Elizak garrantzi handia zuen, eta, ondorioz, gizon eta emakumeen arteko aldea oso handia zen. Hemen, ostera, Elizak lan handiagoa izan zuen sartzeko eta egonkortzeko, eta denbora luzeagoz eutsi zitzaion emakumearen garrantziari. Eliza sartzearekin batera, dena den, emakumearen papera, endekatuz joan zen Euskal Herrian ere.

Eta emakumeak Euskal Herrian izan duen paper horren gaineko aztarnarik geratzen al da egun? Gizarteari begiratuta, eta azterketa zehatzik egin gabe, ezetz dirudi...

Telebistak eta bizimodu berriek eragin handia izan dute, baina nik uste dut aztarnaren bat geratzen dela, herri batzuetan, baserri batzuetan. Emakumeak eta hark egiten zuen lanak zuten garrantzia oso ongi erakusten du Sandra Ott-ek Santa Grazin egindako ikerketak. Santa Graziko artzainen bizimo-

duaren inguruko tesia egin zuen, eta bertan oso ongi ikusten da sistema oso antolatua zutela, mundu ikuskera orokor bat zutela... Tesia duela 30 bat urte egin zuen, eta emakumearen garrantzia handia zen oraindik, bai sinbolismo aldetik eta baita lanari zegokionean ere. Artzainak, udan mendiko txabolarara igotzen ziren, eta han etxeko sistema bera errepikatzen zuten; sistema zirkularra, alegia. Sistema ez baita hierarkikoa, zirkularra baizik. Txabolan lan kopuru jakin bat dago eta lanik onena, denek gustuko den dutena, gazta egitea da; lan horri etxekanderearen lana deitzen zaio. Lan horiek zirkularki egiten dira; egun batean, txabola garbitu, hurrengoan ardiak jetzi, eta azkenean gazta egin; zirkularra denez, denek egiten dituzte lan guztiak, beraz, berdintasunezko gizartea da; inor ez da inoiz inoren gainetik jartzen. "Üngürü" esaten zioten, horrela, zirkuluan egiten zutelako.

Auzolana ere oso garrantzitsua zen eta markatuta zegoen baita ere, lehen auzoa zein zen, bigarrena, zerbait izanez gero nora jo behar zuten... hori guztia arautua zegoen. Sandra





Ott handik hamar urtera itzuli zen Santa Grazira, eta dena oso aldatuta ikusi zuen. Oso azkar ematen ari dira aldaketa horiek, urte luzez iraun eta gero.

Bizirik irauteko gakoak zein diren asmatu beharko genuke. Zeintzuk dira?

Bat euskara da zalantzarik gabe, euskara bizia. Euskara bizirik egoteko, Euskal Herriak gauza interesgarriak dituela ere erakutsi behar da. Ez da euskara ikaste hutsa, baizik eta horren inguruan dagoen guztia.

Aldaketak oso azkar gertatzen ari direla aipatu duzu. Nola presta ditzakegu ikasleak mundu globalizatuak dakartzan erronkei eta zailtasunei aurre egiteko?

Nik uste dut Euskal Herriaz ari garenez, Euskal Herriak historian erakutsi dituen elementu baliagarrien inguruan zerbait lantzea, eta horren bidez balioak aldaraztea beharrezkoa dela. Gazte asko kutsatuta daude dagoeneko eta baloratzen duten gauza bakarra kontsumoa da, aisialdian edatea... Zentzu horretan, ez euskarak, ez euskal balioek ez dute lekurik, eta hori da aldarazi

behar dena. Balio batzuk beste batzuk baino aberasgarriagoak dira eta horiek erakutsi behar zaizkie. Gazteak batzuetan ez daude pozik egiten ari diren bizi-moduarekin, eta gurasoak, gainera, askotan beste arazo bat dira, sartu den lehiakortasunarekin ikasle askok ez baitute ezertarako denborarik izaten, denbora guztia hartuta dute; ingelesa dela, musika dela... Hori ere aldarazi behar da, balioak aldarazi behar dira eta garbi izan behar dugu ikasketez gain, haurrek eta gazteek aisialdirako denbora izan behar dutela, eta jolasten ere ikasi behar dutela.

Zein dira bultzatu beharreko balio horiek?

Geure buruarekin gustura bizitzeko solidarioa izatea, konsumista ez izatea, sartu diren hainbat elementu baztertzea, ingurukoei laguntzen jakitea... ezinbestekoa da. Hori guztia berreskuratzea oso garrantzitsua da.

Emakundek euskararen erabilera sexistaren inguruan egindako txostenak eta gidak ahotan izan ditu Alizia Stürtzek, izan ere ez dago ados elkarateak egiten duen balorazioarekin: "Euskararen sexismoa dagoela diote, eta hitanoa baztertu beharra ere aipatzen dute, baina nik uste dut hori, hitanoa ez ulertzea, eta euskararen arima ez ulertzea dela. Horrelakoetan ere islatzen da zenbat gauza galdu ditugun geure nortasunaren inguruan".

Seme-alaben bortizkeria gurasoekiko Gelan duen eragina

Gurasoek seme-alaben aldetik bortizkeria (fisikoa zein psikologikoa) jasaten dutelako jartzen dituzten salaketen kopuruak gora egin du azkenaldian. Horrelako kasuak nerabezaroan gertatzen dira batez ere; eta hainbat adituren esanetan, mutilek indarkeria fisikoa erabiltzeko joera dute, eta neskek, berriz, indarkeria psikologikora jotzen dute. Kasu horietan guztietan, normalean eta batik bat, amari egiten zaio eraso. Nilda Gorvein eta Pilar Legarra mota horretako arazoak dituzten familiekin ari ziren dira lanean, eta arazo horiek aurreikusteko eta bideratzeko eskolak duen garrantzia azpimarratu dute.

Gurasoekiko seme-alaben bortizkeria dela eta, gero eta salaketa gehiago jartzen dira. Zer ari da gertatzen?

Pilar: Nik uste dut horrelako kasuak beti gertatu direla, baina gaur egun aldeak daude. Lehen, indarkeria, agresibitatea berezkoa duten gaixotasunekin edota hainbat kontsumorekin lotzen zen; baina orain hori aldatu egin da. Gurasoak jotzen dituzten gazteak kalean normaltzat hartzen direnak dira; ez dago kontsumorik, eta, egotekotan, ez da handia, eskolara joaten dira, ohiko bizitza egiten dute... Baina gurasoak jotzen dituzte. Salaketara ez da bat-batean iristen; izan ere, edozein familiarentzat gogorra da gertatzen ari zaiona aitortzea, eta egoera jasangaitza den



arte, normalean ez da pausorik ematen.

Nilda: Genero indarkeriarekin gertatzen den gauza bera gertatzen da, hau da, kosta egiten da norbera bizitzen ari dena kanporatzea. Larritasunari dagokionez berdintsua da, baina indarkeria seme-alabengandik datorrenean bestelako beldurrak ere agertzen dira. Besteak beste, gizarteak eta ingurukoek, horrelako zerbait gertatzen ari bada, gurasoek seme-alabak era egokian hezi ez dituztelako dela pentsa dezakete, eta gurasoak horren beldur ere izaten dira.

Zerk bultzatzen ditu seme-alabak gurasoen kontra jotzera?

Pilar: Aztertuz gero, autoestimu baxuko gazteak direla ikusten dugu,

oso egozentrikoak, nahi duten guztia ahaleginik egin gabe jasotzen dutenak... Eta ez da arraroa babeserako gehiegizko joera duten gurasoekin gertatzea. Gurasoek seme-alabei ez diete mugarik jartzen, eta eskatzen duten guztia izatera ohitzen direnez, ezezkoa jasotzen dutenean, erreakzioa dago. Normalean, indarkeria fisikoaren aurretik irainak izaten dira, baina gero kolpeak datoz, ondoren hori guztia orokortu egiten da eta kontrola galtzen da, erabat. Gurasoek ez diete esaten gazteei ezin dituztenik jo eta amek, batez ere, gertatzen ari dena justifikatzeko joera izaten dute, "oso jatorra da, baina jenio txarra du", modukoak esanaz.

Nilda: Familian, sekula hautsi behar harko ez litzatekeen sistema hierarki-

koa dago. Eta hierarkia hori hausten denean, oso zaila da berreskuratzea. Gurasoek askotan mugak jartzeko eta ezezkoak emateko beldurra dutela dirudi. Lehen ezetz esatea ohikoa zen eta baiezkoa, salbuespena; baina, gaur egun kontrakoa gertatzen da. Gaur egun, denari baiezkoa ematen zaio, telebista ikusteari, beranduago etortzeari... Ez dute ezezkorik ulertzen eta, gainera, gainerakoen kontra jartzen zaituzte, arraroa izango bazina bezala. Maitasuna, seme-alabak zaintzea, gurasoen rola... mugarik ez jartzearekin lotu dira. Eta zabaldua dago arauak jarritz gero, maitasuna galduko dugulako ideia, baina ez da hala.

Pilar: Mugak jartzen badira, maitasuna hobeto erakusten da. Seme-alabekin egoteko denbora faltak ere eragina du; gatazkak saihesten ditugu, baina hainbeste saihestearekin, guraso gisa dugun ardura ere alde batera uzten dugu sarritan.

Nilda: Errazagoa eta askoz erosoagoa da, mugak jarri eta horiei eutsi beharrean, denari baiezkoa esatea. Eta gazteek etxean mugak eta arauak barneratzen ez badituzte, beste inguruetan ere ez dituzte barneratuko. Familiari arauak gainditzen dituztenean, sistemari desafio egingo diote, eta erraza da gainerako lekuetan gauza bera egitea. Familiari desafio egin diezaioketela ikusten dutenean, eskolan gauza bera gertatzen da. Indarkeria balio bat gehiago izatera pasatu da, eta askotan komunikaziorako tresna ere izaten da.

Zein ingurunetan gertatzen dira horrelako kasuak?

Pilar: Erdi-goi mailako klaseetan gertatzen ari da; baliabideak dituzten etxeetan.

Nilda: Eskatu bezain laster, eskatutakoa jasotzen duten gazteak dira eta, beraz, diru faltarik ez duten familietan gertatzen da. Gizarte maila baxuagoe-

tan beste arazo batzuk gerta daitezke, baina gurasoekiko indarkeria erdi-goi mailako klaseetan gertatzen da, batez ere.

Eskolan ere, irakasleekin gauza bera gerta daitekeela esan duzue.

Pilar: Bai. Izan ere, gertuen duten autoritateari eraso egiten badiote (gurasoei), irakasleari eraso egitea ere, erraza izango da. Mugak hausten direnean, eskolan edozer gerta daiteke.

Nilda: Horri aurre egiteko tresnak eskaintzea da, hain zuzen ere, gure helburua: irakasleei arazoa ezagutaraztea, nola gertatzen den jakitea eta zer sintoma duen jakitea; gelan kasuren bat antzemanen gero, edo aita edo ama bat horrelako gairen batekin etorritz gero, zer egin dezaketen esatea. Horretarako, tresnak eskaini nahi ditugu. Eskolak ez du arazoa konponduko, baina zer egin behar duen jakin behar du.

Prebentzioak garrantzi handia du horrelako kasuetan. Nola aurre hartu kasu horiei?

Nilda: Lehena, familiari informazioa helaraztea da, horrelako egoera baten aurrean dauden edo ez jakin dezaten. Guraso-eskola oinarritzakoa da guretzat, inor ez delako jaiotzen ama edo aita izaten jakinda. Jendeari kosta egiten zaio horrelakoetara joatea, baina kontzientziazio lana egitea oso garrantzitsua da.

Pilar: Eta beste alderdi bat ere bada, gizaratean arauak zerbait txarra izango balira bezala ikusten direla. Leku guztiak askoz ere demokratikoagoak dira gaur egun: eskola demokratikoa da, gurasoak demokratikoak gara eta oso ongi konpontzen gara seme-alabekin... Gizartearen errota diren ideia horiek gurasoei ez diete arauak jartzeko baimenik ematen, eta guraso zorrotzak gaizki ikusiak dira. Lehen gurasoak zorrotzagoak ziren, guztiak, eta denek onartzen zuten. Eskolan zerbait gertatzen bazen, irakasleak zigortzen zintuen eta, ondoren, etxean zigortzen zintuzten. Orain, gurasoek, irakasleak zer egin dien galdetzen diete seme-ala-

bei, eta hurrengo egunean eskolara doaz, irakasleari errieta egitera. Seme-alabek esandakoa ez da zalantzan jartzen. Gurasoek gutxiesten duten irakasleari asko kostako zaio hurrengo egunean autoritatea jartzea. Gazteak boterea hartzen doaz, eta egoera kontrolaezina izatera iristen da, batzuetan. Kontuan izan behar dugu, baita ere, indarkeria, zenbait kasutan, eskaera moduan uler daitekeela, "jar diezazkideatela mugak kanpotik" moduko eskaera baten gisara. Haurrak euskarriak eskatzen ditu askotan, kanpotik ikusten ez den arren.

Irakasleek zer laguntza eskain dezakete kasu horietan? Zer pauso jarrai ditzakete? Zer dago haien esku?

Nilda: Lehenik, arazoa ezagutu behar dute eta, ikasleen jokabideak aztertzeke jarraibide batzuk izan behar dituzte. Eskolan, gai horren inguruko protokoloa izan beharko lukete. Gerta daiteke, bestalde, arazoaren berri gurasoek ematea. Gurasoak nora bideratu jakin beharko lukete, eskolan orientatzaile lana egin beharko lukete.

Pilar: Irakasleek kartak ahoz gora jarri behar dituzte, eta gurasoei esan behar diete arazoa ez dela egun batetik bestera pasako, patologia bat dela eta bideratu behar dela. 12 eta 18 urte bitarteko gazteen artean gertatzen dira, batez ere, horrelako kasuak, eta adin horretan, gazte gehienak eskolan izaten dira; horregatik diogu ikastetxeak kasuak antzemateko leku aproposak izan daitezkeela. Tratamendua egiterik ez dute izango, baina, behintzat, arazoa bidera dezakete.

Baina nola antzeman ditzakete irakasleek kasu horiek?

Pilar: Erasotzailea den ikasle hori normalean ez da soilik erasotzaile. Normalean ez du egoki funtzionatzen, ez du harreman onik izaten eta irakaslearekin ez da ongi moldatzen, autoritate-rik onartzen ez duelako.

EJE proiektua

Enpresak sortuz ikasteko aukera

Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuko ikasleek egiazko enpresak sortzen dituzte, Iñaki Ugalde irakaslearen laguntzaz. Enpresa txikien eta enpresa ertainen administrazioa eta kudeaketa izeneko ikasgaia eman behar dute, eta enpresa batek nola funtzionatzen duen ikusteko, horietako bat sortzea baino ezer hoberik ez da. Beraz, EJE proiektuak eskaintzen duen aukera baliatuta, hori proposatzen die irakasleak ikasleei: benetako enpresa bat sortzea eta haiek gidatzea. Ikasgelan, rolak erabat aldatzen dira, ikasleak protagonistak dira eta irakaslea, gidaria. Ikasleek diote eskolak iristeko zain egoten direla, eta irakaslea hezitzaile izatea zer den ikusi dutela, irakaslearen betiko irudia alde batera utzita. Ikasleak euren beharren arabera joaten dira ikasten, eta komunikazioa, sormena edota talde lana lantzen dituzte. Denak daude gustura esperientziarekin.

Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuko Erdi Mailako Heziketa Zikloko ikasleak ari dira esperientzia aurrera eramaten, Iñaki Ugalde irakaslearen laguntzaz. Duela bi urte, ikasketaburuak ikasgai berri bat eman behar zutelaren esan zien Iñakiri eta beste lankide bati: Enpresa txikien eta enpresa ertainen administrazioa eta kudeaketa.




Ikasgaia zaila da, eta arintzeko, betiko metodoa hautsi beharra ikusi zuten, Iñakik esan digunez: “Lan egiteko betiko modua aldatu behar genuela ikusi genuen. Eskolak betiko moduan ematen direnean, irakasleak eskola ematen du, ikasleak erdi lo egoten dira eta parte hartzea oso baxua izaten da. Horrelakoetan, irakaslea eta ikasleak aspertu egiten dira”. Eta gauzak aldatzeko asmoz, EJE proiektuari buruzko ikastaroa egin zuten Iñakik eta lankideak. EJE, proiektuetan oinarritutako metodo pedagogikoa da; interesgarria iruditu zitzairen, eta ikasgelan aplikatzea erabaki zuten.

EJE proiektuak egiazko enpresa bat sortzea du helburu. Finantzazio iturriak egiazkoak dira, ikasleek banketxera jo-

an behar dute kreditu bat eskatzera, enpresa gidatu behar dute... Normalean kooperatiba bat sortzen dute, Iñakik biga zehazten die eta ikasleek erabakitzen dute zer pauso emango dituzten.

Eginkizun-aldaketa prozesua

EJE proiektuan, irakaslearen funtzioa eta eskolak erabat aldatzen dira. “Aplikatu genuena metodo berri-tzailea izango zela esan nien, eta eginkizun-aldaketaren prozesu horretan haiek ere parte hartuko zutelaren, prozesua dinamikoa izango zela”, esan digu Iñakik. “Unitate didaktiko guztiak ez emateari beldurra dioten irakasleak badi-za, baina hemen ez da halakorik gertatzen. Azkenean, beste era batera, baina teoria guztia ematen dugu, proze-



suak aurrera egin ahala ikasleek beharrezko dutelako. Haiek egiten dizkidaten galderek teoria azaltzeko aukera ematen didate, eta horrek jarrera aldatuta dakar, behar dutena haiek eskatzen dutelako”, jarraitu du Iñakik. Auto-gestionatutako taldeak dira, eta irakasleak gidari lana egiten du. Ikasleren batek arazorik baldin badu, denei ematen die azalpena, noizbait egoera horretan egonez gero, arazoa konpontzen jakin dezaten. “Nik, ikasgelan, dagokidan arduraren nire gain hartzen dut, baina nabarmendu gabe. Eska diezadate laguntza behar dutenean. Ez diet ezer inposatzen, prozesu horretan bitartekaria naiz, orientatzailea, eta behar duten informazioa jasotzera nora jo behar duten esaten diet. Espazio berriak sortzen ditugu, pentsatzeko denbora hartzen dugu, eta eguraldi ona egiten badu, ikasgelan egon beharrean kalera ateratzen gara. Lana bera da, baina gusturago daude”, jarraitu du Iñakik. Irakasle taldekide bat gehiago da, eta horrek asko aldatzen du ikasgelako giroa.

Egiatzko enpresa bat sortzeak beldurra eman zien hasieran ikasleei, ez baitzuten beren burua enpresa bat gidatzeko prest ikusten. Baina, pixkanaka, beldur hori desagertzen joan zen eta eskola orduak iristeko gogoareagotu egin zen. Motibatu egiten dira, eta enpresa nola doan jakiteko irrikaz egoten dira.

Hasieran ez zuten konfiantza handirik elkarlanean hasteko, Iñakik esan digunez: “Inork ez die inoiz gaitasun guztiak lantzen utzi. Betiko sistema ezagutu dute: ikasgelara joan, irakasleari entzun eta kito. Baina, orain, euren lana balioesten dute, eta proiektua aurrera aterako dutela sinesten dudala ikusten dute”. Ikasleek beren gain hartzen dute proiektuaren arduraren guztia, irakasleak proiektuaren atzean dagoen arduraren baino ez du hartzen. Norberak dituen gaitasunen eta zaletasunen ar-

bera banatzen dituzte eginkizunak, elkarren artean ados jartzen dira eta ardurak betetzen dituzte; izan ere, batek huts eginez gero, talde osoak jasaten ditu horren ondorioak. Eta, gainera, denak inplikatzeko denen lanean, eta talde-lanak garrantzi handia hartzen du. “Elkarri laguntza eskaintzen diote une oro, ezin dute inor baztertu. Konpromiso jakina eta helburu jakina dituen lan-taldeak badaki zer egin behar duen. Prozesuaren emaitzak beren gain hartzen dituzte, eta garrantzi handia du horrek. Enpresa ongi edo gaizki badoa, arduradunak haiek dira. Nik bitartekoak eta laguntza eskaintzen dizkiet, baina enpresak porrot egiten badu, arduraren haiena besterik ez da, eta hori onartzen dute. Talde lanean aritzeak dituen zailtasunak ezagutzen dituzte, eta elkarri ardurak eskatzen dizkiote”, esan digu Iñakik. Komunikazioak, beraz, garrantzi handia du prozesu guztian.

Ikasleak talde-lanaren garrantziaz jabetu dira, haietako batek esan duenez: “Taldea egiterakoan, askotan, norberak etxean egiten zuen zegoen zatia eta, ondoren, dena grapatu eta irakasleari entregatzen genion. Nik ere hori egiten nuen, baina orain ikusi dut benetan talde lana zer den. Egunerok zure lankideak jasate zer den ere, ez dut jakin orain arte”. Elkarrenganako errespetua izatea izan da zailtasun handietako bat ikasleek diotenez, eta aurreiritziak alde batera utzi behar izan dituzte lana egiteko. Denek egin behar dute ahalegina enpresa ongi joan dadin, izan ere, norbaitek egin beharrekoa egiten ez badu, gainerakoen lana ere oztopatu egingo du. Esaterako, produktuak jaso behar dituenak jasotzen ez baditu, garraiolariak ezingo ditu bidali, produkturik ez dagoelako. Beraz, elkarri laguntzen diote, arazoak gainditzeko eta proiektua aurrera eramateko.

“Berrikuntza eta ikaskuntza bultzatu nahi ditugu. Ikasleek gauza berriak egin daitezkeela ikusi dute; ikasgelan beste era batera egin daitezkeela lan. Ekintzaile izaten ikasi dute, euren ekar-

Egiatzko enpresa bat sortzeak beldurra ematen hasieran ikasleei, ez baitzuten beren burua enpresa bat gidatzeko prest ikusten. Baina, pixkanaka, beldur hori desagertzen joan zen eta eskola orduak iristeko gogoareagotu egin zen. Motibatu egiten dira, eta enpresa nola doan jakiteko irrikaz egoten dira.

penak egiten. Talde kohesioaren garrantziaz ere jabetu dira. Arazo askori egin behar izan diote aurre, eta erabakiak denen artean hartzen ikasi dute. Beraz, ikasgelako ereduak aldatu behar ditugu. Komunikazioa eta lan kooperatiboa beharrezkoak dira, norberak ondokoari lagundu behar dio helburu nagusia lortzeko, eta elkarlanean aritzen dira. Enpresan, lanpostu guztiek duten garrantzia ikusten dute, eta lidergoaren kontzeptua lantzen dute; norberak bere lan esparruko lider sentitu behar du”, esan du Iñakik.

Erronka nagusia proiektuaren garapena helburu bilakatzea da, eta, helburua, proiektuaren garapenaren atzean dauden pertsonak dira. Proiektua amaitu edo ez, horrek ez du garrantzirik, berdin du enpresa ongi edo gaizki joan den. Bizi izandako guztia da garrantzitsua, egindako lana. Ikasleak lanerako era praktikoan prestatzen dituzte, eta bertan topatuko dituzten gorabeherak ahalik eta erarik egiatzkoen aurkezteko dizkiete. Ikasleek diote, lanerako asko ikasi duten arren, batez ere pertsona gisa ikasi dutela.

La Anunciata ikastetxea

Natura ezagutzeko hamaika proiektu

Ingurumenarekin lotutako hainbat proiektu lantzen dituzte Donostiako La Anunciata ikastetxeko ikasleek. Ikastetxearen inguruan egiten dituzte proiektuak, eta Oarsoaldeko errekek, iturriak, landareak... aztertu zituzten joan den ikasturtean, gelan ikusitakoa bertatik bertara ezagutzeko. Batxilergoko ikasleak aritzen dira, batez ere, proiektuak egiten, bai gustura aritu ere, izan ere haietako askok asteburuetan egiten dituzte lanak. Miramongo Zientziaren Kutxaguneak antolatzen duen Experimentaldia azokan erakutsi zuten egindakoa.

Ingurumenarekin lotura dute La Anunciata ikastetxeko ikasleek lantzen dituzten ikerketa proiektu guztiek. Donostiako ikastetxea bada ere, Pasaiatik oso gertu kokatua dago, eta Oarsoaldetan egiten dituzte azterketak. Horietako asko ura aztertzeko lanak dira; Jaizkibel, Ulia eta San Markos mendietako iturriak aztertu dituzte, Lezoko erreka bateko parametro fisikoak eta kimikoak, eta Molinao errekan parametro biologikoak ere aztertu dituzte, mikroorganismoen azterketaren bidez. Guztira, Pasaiako hamar erreka aztertu dituzte. Eusko Jaurlaritzak antolatutako 'Ibaialde' proiektuaren bidez, bestalde, bi ibai ikertu dituzte: Oiartzun ibaia eta Molinao ibaia. Eta 'Azterkosta' programa ere lantzen dute.

Baina, bada gehiago ere. Juan Car-

los Lizarazu irakasleak esan digunez, Irunen beste proiektu bat egin zuten: Plaiaundin, landareen gainean. Parke ekologiko horretan zer zuhaitz mota dauden aztertu zuten ikasleek, eta gida dikotomikoa osatu zuten hainbat landare mota sailkatzeko; horrekin batera, ibilbidea zehaztu zuten, parkeko landare guztiak ikusteko.

Beste proiektuetako bat sagardoa-

ren gainekoa izan zen; sagardoa nondik datorren aztertu zuten, eta nola hasi ziren egiten, zer makineria dagoen, nola garatu den... Eta sagarretik ateratzen den muztioa sagardo bihurtzeko prozesuan parte hartzen duten onddoak ere aztertu zituzten.

Ikerketa lanak egin ondoren, ikasleek hiru joko sortu dituzte; bata zuhaitzei buruzkoa da, txikienez batez ere;



Haizea Larunbe Ikaslea

Haizea Larunbek "Gure eskualdeko iturburuak" izeneko lana egin du ikaskide batzuekin batera. Jaizkibel, Uliia eta San Markos mendieta-
ra igo dira han dauden iturriak ikusteko eta horien egoera nolakoa den aztertzeko. Atera duten ondorio nagusia hau da: ez daude iturburu asko, eta ur asko galtzen da dagoen sistema ez delako egokia, eta ura etengabe isurtzen delako. Asteburuetan egiten zituzten lana egiteko irteerak; igande goizetan mendira joaten ziren, eta, ondoren, laborategiko frogak ikastetxean egiten zituzten.

Nola topatu zenituzten iturriak?

Mendiko bideetatik joaten ginen, eta topatu egiten genituen. Horrekin



Haizea Larunbe eta Juan Carlos Lizarazu.

batera, mendiko mapak hartu genituen, eta iturburuak kokatzen joan ginen.

Aztertutako guztia paperean jaso duzue. Zer pauso eman dituzue lana osatzeko eta antolatzeko?

Lehenik, erabilitako metodologia-
ren azalpena egin genuen. Gipuzkoako uraren egoera nolakoa den azaldu genuen; eta urtegiek ur asko dutela ikusi genuen. Uraren kalitateak nolakoa izan behar duen zehaztu genuen, eta, ondoren, iturriak eta horien ingu-

runea nolakoak diren, emariek duten kokapena, pertsonak sar daitezkeen edo ez... horrelako datuak bildu genituen. Gero, uraren frogak egin genituen: ph-a, nitritoak, nitratoak... Frogak han bertan egiten genituen, eta, ondoren, eskolan errepikatzen genituen, batez bestekoak ateratzeko.

Zenbat denbora eman duzue lanean?

Ia urte osoa behar izan dugu, baina alde teorikoa eta praktikoa landu ditugu, eta oso interesgarria izan da.

beste bat, ibaiaren gainekoa da, eta hainbat atal ditu: kirolak, animaliak, landareak... Eta energiari buruzko jolas ere badute, monopoliren antzekoa; Energipoli izena jarri diote, eta energiarekin lotutako galderak erantzun behar dira. Diruarekin jolasten da, eta beraz, matematika lantzeko balio du.

Ikasleak ikerlari, baita asteburuetan ere

DBHko 3. mailan hasten dira ikasleak 'Ibailde' proiektua lantzen, baina, batez ere, ondoren, Batxilergoko 1. mailan, aritzen dira proiektu horietan

lanean. Maila horretan, ikasturtean zehar, euren kabuz egin behar dute ikerketa, eta nahi izanez gero, Batxilergoko 2. mailan jarrai dezakete ikerketarekin. Ikasle asko gustura daude esperientziarekin, eta eskola amaitu arte jarraitzen dute ikerketa munduan sartuta. "Ikasle batzuk boluntarioak dira, eta, letretan egon arren, gustuko dute ikerketaren mundua, eta gustura aritzen dira lan horiek egiten", esan digu Lizarazuk. Horrelakoetan, eskola-orduz kanpo aritzen dira lanean, arratsaldeetan edo asteburuetan.

Proiektuek ikasturte osoan zehar

irauten dute, Lizarazuk esan digunez: "Batxilergoko 1. mailan ikerketa bat nola egiten den azaltzen diet. Ikasleek gaiak proposatzen dituzte, eta egingarria den ala ez ikusten dugu. Ingeniari-tza genetikoaren gaineko proiektua egin nahi dutela esaten badute, ezinezkoa dela esaten diet, eta, horretarako, unibertsitatera joan behar dutela. Bartzuetan nik ematen dizkiet gaiak, eta haiek aukeratzen dituzte".

Irakaslea eta ikasleak, guztiak dau-
de gustura egindako lanarekin, eta da-
tozen ikasturteetan bide beretik jarrai-
tzeko asmoa dute.

Hezkidetzari buruzko atal berria duzue hau. Ikastetxean, etxean, kalean... hezkidetzaren gaia lantzeko tresnak eskainiko dizkizuegu orrion bitartez aurrerantzean.

Berdintasunerako jolastokia

Hezkidetzaren eta espazioaren gaineko baliabideen gida



Begoña PETXARROMAN eta Beatriz MORAL

FARAPI ELKARTEKO KIDEAK

Espazioak, banatzeko eta sailkatzeko balio du: haurrak hemen, zaharrrak han, emakumezkoak leku batean, gizonezkoak bestean. Espazioak gizarte banaketaz dihardu, hierarkiaz, pertsona taldeen arteko mugez. Espazioa ikertuz gero, gizarte baten ezberdintasunak aurki ditzakegu. Eskola ez da salbuespena, eta eskolako espazioaren erabilera ikertu dugu, bertan agertzen diren hierarkiak aztertzeko.

2005ean "Berdintasunerako jolastokia. Hezkidetzaren eta espazioaren gaineko baliabideen gida" argitaratu zuen Hernaniko udalak. Udalak antolatutako hezkidetzazko programa baten barruan ikerketa bat egin genuen eta horren emaitzak gida horretan plazaratzea erabaki zuen. Gidaren helburua, jolastokiaren berdintasuneko erabilera ahalbidetzeko zenbait ideia eskaintzea da.

Neurri praktiko eta simple batzuk garatu ditugu gida horretan. Neurrian xedeak hauek dira:

- Genero estereotipoak jarraitzen ez dituzten espazioen erabilera bultzatzea.
- Nesken eta mutilen arteko elkarrekin-tza-mota aldatzea.
- Neskak kanpoko espazioak erabiltzera animatzea, baita ariketa fisiko gehiago egitera, haien gustukoak diren jarduerak bultzatuz.
- Espazioaren erabilera baldintzatzen duten hierarkiak apurtzea.
- Neskek erabiltzen dituzten espazioei nortasun eta garrantzi handiagoa ematea.
- Mutilentzako kirol eta lehia-jolasen aurrean beste aukera batzuk ematea.
- Espazioen dibertsifikazioa bultzatzea.
- Espazioak erraz eraldatzeko bitartekoak ipintzea.

1. Neurri orokorrak

A. Egoeraren diagnostikoa egitea. Neskek eta mutilek espazioaz berdin


gozatzea zailtzen dituzten elementuak aurkitzea.

B. Ikasleen, irakasleen eta familien parte-hartzea bultzatzea. Horrela, espazioaren erabilera sexistez jabetuko dira eta hobetzeko proposamenak errazago onartuko dituzte.

2. Espazioaren diseinua

A. Kirol-ekintzetarako espazio gutxiago erabiltzea. Kanpoko espazio gehienak kirolerako prestatuak daude, pertsona gutxi batzuk soilik erabili ditzakete aldi berean, eta gainerako ikasleek (gehienez, txikiak eta neskak) geratzen den espazioa baino ezin dute erabili. Kirol-espazioak, gainera, mugaturik dauden bakarrak dira, eta ekin-tza jakin baterako prestatuak. Jolastokiak neutroak, irekiak eta balioaniztunak izatea gomendatzen dugu.

B. Kirolerako ez diren kanpo-espazio alternatiboak egokitzea. Interesagarria izango litzateke askotariko taldeak gustura ibiltzeko eremu anitza sortzea.



D. Espazio estali gehiago egokitzea. Espazio horiek hainbat jardueratarako prestatu beharko lirateke edo erraz moldatzeko modukoak izan beharko lukete.

E. Barruan hainbat eremu eta eremu bereziak sortzea. Aisialdia barne-espazioetan ere ematen da, eta, horregatik, funtsezkoa da hainbat jardueratarako lekuak egokitzea.

F. Espazioa jarduera anitzetarako erabiltzeko material mugikorak jartzea.

G. Espazio atseginagoak sortzea. Espazio arrotz batek jarrera arrotzak bultzatzen ditu. Espazioa banatzen duten hesiak eta hormak edo giro gogor eta arrotza sortzen duten elementuak kentzea komeni da. Leku atseginak sortu behar ditugu.

3. Espazioaren erabilera

A. Espazioaren erabilera arautzea,

ordutegi batzuen arabera: Helduek eta mutilek haien gogoaz ezartzen dute bes-teen gaitetik. Hori, ordutegia antolatuta konpon daiteke sexu eta adin guztiei aukera bertsuak emanez.

B. Nesken espazio eta jarduerak balioestea. Onartu eta balioestez gain, nesken jarduerak denentzako interesgarriak diren ekintza gisa onartu behar dira; izan ere, jarduera horietako askok neska zein mutilentzat interesgarriak diren gaitasunak lantzen dituzte.

D. Lehiakorrak ez diren jolasak, jolas mistoak eta lankidetzarako jolasak ezartzea. Espazioa beste era batera erabiltzeko, jarduera berriak sartu behar dira, adibidez, lehiakorrak ez diren jolasak eta neskek eta mutilek batera burutu ditzaketenak. Era berean, beharrezkoa da modu naturalean burutzen dituzten ekintza mistoak behatzea eta indartzea.

E. Azpiegitura eta espazio handiak behar ez dituzten kirol-jolas erraz gehiago sartzea: Jolas arruntak sar daitezke, adibidez: pala, badminton, go-

ma, soka eta beste asko. Mota horretako jolasek neskek (eta mutilek) kirol ekintzak burutzea bultzatuko lukete.

F. Talde mistoen (adina eta sexua) jarduerak. Sexuan eta adinean oinarritzen diren taldeek banaketa eta hierarkiak bultzatzen dituzte. Hainbat sexu eta adineko ikasleen arteak loturak sortu behar dira.

G. Talde txiki mistoetan egiteko ekintzak. Talde handiek ekintza hierarkikoak edo aurkakotasun ekintzak errazten dituzte, talde barruan aliantzak eta kategoriak ezartzen dituztelako. Komenigarria da talde txikiak ekintzak antolatzea.

H. Ikasleek haien arteko aldean inguruan hausnartzea. Espazioaren erabileraren inguruko jarrera aldaketa eragin edo indartu daiteke egoera ezagutzea bultzatuz.

I. Pertsona dinamizatzailea gehitzea. Dinamizatzailea pertsona giltzaria da, bereziki espazioaren erabileraren aldaketa-prozesu baten hasieran, joera betiko ohiturak iraunaraztea delako.

KUBAko Biltzar pedagogikora joateko azken aukera

Aurkezpen bat egin nahi duenak urriaren 15a baino lehen bidali behar du



Nola ikasten dute haurrek eskola txikietan? Zer funtzio betetzen dute talde heterogeneoek ikasleen heziketan



Talde heterogeneoei buruz hitz egiten dugunean, nahastutako taldeei buruz ari gara. Europan eta Latinoamerikan ez da talde heterogeneoei buruz hitz egiten; talde graduantiztunei buruz hitz egiten da.

Nire ustez garrantzitsuena den baieztapenetik abiatzen naiz beti: eskola txikia, ikasten duen eskola da. Bertan ikas daiteke, eta horri ikasleek ikasi behar duten eskola dela gehituko nioke nik. Baieztapen horretatik abiatzen naiz talde heterogeneoak edo graduantiztunak justifikatu behar ditudanean. Baina, zer gertatzen zaigu? Badirudi, gaur egun, oraindik ere, hiritik datorren guztia dela onena; modernoena da, eta nekazari girokoa den guztiarekiko nolabaiteko gutxiespena dago. Eskola txikiak bigarren mailakoak dira, denak nahastuta daudelako; ikasleak bigarren mailakoak dira, herriak bigarren mailakoak dira, eta familiak ere bai. Guztia da bigarren mailakoa. Gaur egun, oraindik, talde graduantiztunaren balio pedagogikoa argudiatu beharra dugu. Hori dela eta, eskola txikiak hiriko eskolaren antza izan behar du;



Roser BOIX

FILOSOFIAN ETA HEZKUNTZA ZIENTZIAN DOKTOREA.

BARTZELONAKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

horrela erakusten digute unibertsitateak, politikariek, zuzendari nagusiek... Hiriaren antza izan behar dugu, baina zergatik? Frogatu al dute hiriko eskoletatik haur guztiak jakintsuak izaten ateratzen direla? Eskola txikitik ateratzen diren haurrekin duten aldea aipagarria al da? Niri ez didate horrelakorik erakutsi, ez maistra moduan, ezta ama moduan ere. Zergatik izan behar dugu, orduan, hiriko eskolaren antza? Beha-

rezkoa da eskola txikien pedagogia balioestea, eta egin beharreko galdera hau da: nola ikasten dute nire ikasgelako ikasleek? Zein da haien ikaskuntza maila, taldeak, adibidez, 3-12 urte bitartekoak direnean? Hiri inguruetatik datozten guraso askok ez dute begi onez ikusten euren seme-alabak haur txikiago bati gairen bat azaltzea, denbora galtzen ari dela uste dutelako; ez dute kontuan hartzen haur horrek beste bati gai zehatz bat azaltzeko garatu behar duen ikaskuntza metakognitiboa eta gaitasunen garapena, ez soilik besteari gaia azaltzeko, baizik eta besteak, azaltzen ari den hori, ulertzeko.

Nola ikasten dute haurrek eskola txikietan? Nik ikaskuntza-zirkulu zentrokideak deitzen ditudan horien bidez ikasten dute. Oso erraza da. Irudika ezazue 3-12 urte bitarteko haurren ikasgela bat. Eskola txikietako ikasgelak arrainontzi baten antzekoak dira; dena entzuten da, eta dena ikusten da. Eta aberastasun ikaragarria da hori, zeren txikiagoak diren haurrekin lanean ari garenean eta boz gora ari garenean, zaharragoek entzun egiten gaituzte, eta

horrek esan nahi du ikasitakoa gogorazten ari direla eta edukiak finkatzen ari direla. Zenbat aldiz gertatu zaizue, adibidez, txikiagoekin eskualdeak lantzen ari zaretela, zaharragoa den norbaiti orain ulertzen duela edo ez zuela gogoratzen entzutea? Eta, alderantziz, goi-zikloekin lan egiten dugunean, behe-zikloetakoek edukiak aurreratzen dituzte handien modukoak izan nahi dutelako. Hori baino motibazio handiagorik ez dago, eta baliatzen jakin behar dugu. Batzuek aurreratzen duten eta besteek finkatzen duten prozesu hori existitzen bada, zergatik gerarazi behar dugu prozesu hori irakasleok edo testu liburuek? Hori da eskola txikietan dugun aberastasunetako bat, eta, gainera, taldean guztiek dute elkarren artean tutore lana egiteko aukera. Arazoa, pedagogikoki eta, batez ere, gurasoei begira, tutoretza prozesu hori argudiatzen jakitea da, denbora galtzen ez direla ari justifikatzea. Hori da gure aberastasuna: batzuek aurreratzen dute, beste batzuek edukiak finkatzen dituzte eta elkarren arteko tutore lana egiten dute.

Tutoretza ekintza

Ikasle horien tutoretza ekintzak guztiek guztiei irakatsi beharra dakar, eta, horretarako, gaitasuna lantzea. Tutorea den ikasleak bitartekari lana egiten du irakaslearen eta ikaskideen artean. Horrek denbora galtzen ari dela esan nahi al du? Ez, kontrako. Zeren tutore lana egiten ari den haurra azalpenak ematen ari da, hainbat mekanismo garatzen ari da, eta gaia ongi ezagutu behar du, hartzaileak azaltzen ari dena uler dezan. Beraz, azaltzen ari direna uler dadin, estrategiak, baliabideak eta mekanismoak bilatzen dituzte, bestela, ekintzak ez baitu arrakastarik izango. Tutore lana egiten ari den haurra azalpenak ematen ari denean, irakasten ari denean, ikaskideak esandakoa-ri arreta jartzen dionean, gurasoek askotan denbora galtzen ari dela esaten dizute, irakaslea harekin ez dagoelako, baina, egiazki, lanak eta arazoak ebazteko mekanismoak garatzen ari da.

Gaitasun metakognitiboak deitzen ditugunak bilatzen ari da, eta komunikazio arazo bat ebatzi behar du besteak uler diezaion. Bizi izan duen esperientzian zehar bereganatu dituen gatazken ebazpenerako mekanismoak ere garatzen ditu; hari gertatu zitzaion zerbait ikaskideari gerta ez dakion, ulertarazteko beste era batzuk bilatuko ditu. Autoezagutza garatzen du, eta bere autonomia maila erakusten du. Irakasle lanean, benetan bilatzen duguna gure ikasleen autonomia da, are gehiago, eskola txikietan. Eskaerei erantzuteko, gaitasun sozialak eta elkarbizitzarako gaitasunak erabiltzen ditu, eta elkarrekintza horretan, bere burua aberasten du. Hori ez al da ikastea? Tutore lan hori egiten duten bitartean, ez al dira ikasten ari? Ikastea irakasleak eta testu liburuek esaten dutena errepikatzea bada, beste heziketa eta beste ikaskuntza mota batzuei buruz ari gara. Baina, era horretan, haurrak nola ikasten den ikasten du, eta ikasten ikasten du. Tutore lana egiten duen haurrak ikasteko existitzen diren hamaika alternatiba ezagutzen ditu.

Ikaslearen autonomia lantzen ari gara, eta nik haur autonomoak nahi ditut. Ez ditut nahi ikasgelan laugarren ariketa amaitu dutelako hatza altxatuko duten haurrak, nik bosgarren ariketarekin jarrai dezaten esan zain daudenak. Haurrak, ikasgelan sartzen denean, nire beharrik ez izatea nahi dut, eta egun horretan, eta astean zehar zer lan du behar duen jakitea. Nire irakasle papera suhiltzaile papera bihurtu daiteke, su txikiak itzaltzen joan naitekeelako, bereziki, bigarren eta seigarren maila bitartean. Zeren irakurtzen eta ikasten baldin badakite, autonomia maila altua dute. Irakasle naizen aldetik, nire ikasleek autonomia izan dezaten nahi dut. Zer da autonomia? Autonomiak lanean independentzia dakar, auto-antolaketa ahalbidetzen duelako. Ni autonomia banaiz, nire buruarengan konfiantza badut, eta egiten dudana horretan segurtasuna badut, ez dut behar irakaslea etengabe egin dudana baieztatzen ari tzea, ongi dagoela eta aurrera egiteko esaten ari tzea, nire erritmoan noalako.

**Badirudi, gaur egun, oraindik ere, hiritik dato-
rren guztia de-
la onena; mo-
dernoena da,
eta nekazari
girokoa den
guztiarekiko nolabaiteko
gutxiespena dago. Esko-
la txikiak bigarren maila-
koak dira, denak nahas-
tuta daudelako; ikasleak
bigarren mailakoak dira,
herriak bigarren maila-
koak dira, eta familiak
ere bai.**



Nire ikasleak egiten dutenarekin ziur egotea nahi dut; hanka sar dezatela, edo ez, baina ziur egon daitezela nahi dut, eta justifikatutako erabakiak hartzeko gai izan daitezela.

Baina, suhiltzaile paper hori egiteaz gain, irakasle gisa badut beste funtzio bat ere, eta horietako bat oinarrizkoa da: ikasleen ikaskuntza erritmoa errespetatzea; eta horrek testu liburuak albo batera uztea eskatzen du, adibidez, beste gauza batzuen artean. Zeren testu liburuek argi eta garbi markatzen dute ikasleekin zer egin behar dugun eta zer ez dugun egin behar. Baina, berez, ez du ikaskuntza adierazgarri horretan aurrera egiteko autonomiarik bultzatzen.

Hori guztiaz gain, eskola txikietakiko ikasgelak mikrogizarteak dira. Horrekin haxe esan nahi dut: eskola txikietan txikitatik izan diren haurrak eskolaren zati sentitzen dira, euren eskola da, euren irakaslea da, eta euren ikaskideak dira, eta haurra, adibidez, Pablo da, ez edozein Pablo. Horrek guztiak badu bere isla ikasgela barnean. Mikrogizarte horrek hau dakar:

Eskola txikietako ikasgelak mikrogizarteak dira. Horrekin haxe esan nahi dut: eskola txikietan txikitatik izan diren haurrak eskolaren zati sentitzen dira, euren eskola da, euren irakaslea da, eta euren ikaskideak dira, eta haurra, adibidez, Pablo da, ez edozein Pablo. Horrek guztiak badu bere isla ikasgela barnean.

- Berezitasunekiko eta interes pertsonalekiko zein taldearen interesekiko errespetua. Gelako batzarraren antzeko estrategiaren bat erabiltzen badugu, horrek berezitasunekiko errespetua indartzen du.

- Adiskidetasuna, elkarri laguntzea eta jokabide etikoengarapena. Dena ez da paradisua, eskola txikietako ikasgela diziiplina erraz apurtzen baita, baina, era berean, badakite eskola orduak amaitu ondoren elkarrekin jolasean arituko diren kideak direla; eta batzuk anai-arrebak dira, edo lehengusuak... Adiskidetasun handia dago.

- Pentsamendu dibergentea. Hiritik datorren guztia onena izatera ohituta gaude, baina, eskola txikietan, haurrarendik datorrena baliagarria da.

- Ardura, eta bere buruarekiko eta komunitateko beste kideekiko duintasuna. Etengabe elkar joka aritzen diren bi haur lagunak baino gehiago izan daitezke, uneren batean elkar defendatu behar badute; batzuk besteen alde jartzen dira.

- Norberak eta taldeak hartutako betebeharekiko konpromisoa.

- Ekintza bateratuetako partaidetza. Batez ere 3-12 urte bitarteko haurren artean, elkarlana ahalbidetzen duten estrategia didaktikoak erabiltzen badira.

Ikaskuntza kooperatiboa dela esan dezakegu, haurren artean parte hartze zuzena izaten delako, eta elkarri laguntzen diotelako. Gauregun modan dago kooperatibo hitza. Baina eskola txikietan parte hartze zuzen eta aktibo hori izaten da, eta hori da dugun aberastasunetako bat. Arazoa metodologian dago. Baina, zer gertatzen da?

Metodologiaren garrantzia

Hiru galdera egingo ditut metodologia tradizionalagoen eta metodologia aktiboagoen arteko aldeak frogatzen saiatzeko.

1.- Esango al zenidake non duzun barea?

2.- Zer egiteko dute meridioek lurrraren errotazio eta translazio mugimenduetan?

3.- Zer erlazio dago zenbaki hauen artean: 1, 9, 2, 5, 3, 0, 4, 6, 7, 8? Erlazioa aipatu dut, eta ziurrenik, zenbakizko erlazioa bilatu duzu pentsamendu konbergentearen eraginez; izan ere, zenbakiak dauden tokian, zenbakizko hurremana bilatzen dugu. Alfabetikoki ordenatuak daude, ez besterik.

Zergatik ez ditugu gogoratzen ikasten ditugun gauza gehienak? Zer egin dugu hainbeste urtean eskolan ez baditugu ikasi ditugun eduki gehienak gogoratzen? Metodologia arazoa da, batez ere hirietako eskoletan gertatzen dena. Gurekin, metodologia tradizionala erabili dute, hau da, eskola liburuek eta irakasleak diotena ahalik eta erarik zehatzenean errepikarazi digute, eta ongi eginez gero, saria jaso dugu: ikasturtea gainditzea. Bestela, zigorra dugu: ikasturtea errepikatzea. Orduan, memoria lantzen dugu, eta diktaketa egin dugunean, irakasleak iradoki duen koma ere jartzen saiatzen gara, horrela hamarra ateratzeko.

Metodologia tradizionala. Protagonistarik handiena eskola liburua da.

Espazioaren antolaketa: era tradizionalan. Protagonista irakaslea da (logozentrismoa), eta ikasle guztiak hari begira daude.

Denboraren antolaketa: ordutegiak itxiak dira, esate baterako, 9etatik 10etara matematika, 10etatik 11etara naturaren zientziak...

Metodologia aktiboa edo mistoa. Protagonista haurra da (paidozentris-moa), ez eskola liburua, ezta irakaslea ere.

Espazioaren antolaketa: graduak desagertu egiten dira.

Denboraren antolaketa: ordutegiak ez dira itxiak.

Estrategia didaktiko berritzaileak erabil ditzakegu (egiazki, jada, hain berritzaileak ez direnak), gai bera adin tar-te guztiarekin lantzeko aukera emango digutenak, irakasleak berak landutako materialak erabiliz eta inguruarekin lotura duten edukiak sartuz. Kanpoko curriculumak ikasgelan sar dezakegu, eta proiektuetan oinarritutako metodoen bitartez, inguruaren azterketak eginez, kontratu didaktikoen bidez, hainbat talde teknikaren bidez... metodologia mistoa-aktiboa landu dezakegu, haurra irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko egiazko protagonistatzat hartuta. Proiektuetan oinarritutako metodoek, estrategia didaktiko gisa, eskola txikietan etengabe bilatzen dugun autonomia lantzeko aukera errazten dute, eta gaitasun kognitiboak eta jokabideei dagozkien gaitasunak lantzeko aukera ematen digute.

Haurrak landu nahi duen gaia aukeratzeko duenean, edo guztion artean aukeratzeko dugunean, gaitasun kognitiboak eta jokabideei dagozkien gaitasunak lantzen ari gara, izan ere, haurrek erabaki hori argudiatu behar dute, eta hori ere ikastea da. Ez da soilik aukeratzeko gaiari buruzko prozedurazko edukiak edo kontzeptuak lantzea; proiektuetan oinarritutako metodologia erabiltzen badugu, ematen dugun pauso bakoitzean, guztia landuko dugu.

Katalunian eskola txikiaren aldeko apustua egiten dugu, talde heterogeneoen aldeko apustua, talde heterogeneoen balio pedagogikoaren aldeko apustua, eta pixkanaka-pixkanaka metodologia aktiboari dagozkion estrategia didaktikoak erabiltzean aurrerapausoak ematen joan gara.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

urria

berriak

Zernola Olinpiada abian da berriz ere

Elhuyar Fundazioak azken urteetan egin duen modura, Zernola Olinpiada egingo du aurten, zazpigarrenez. DBHko 1. eta 2. mailako gaztetxoek har dezakete parte zientziaren eta teknologiaren inguruko olinpiadan, eta Internet bidez aritu behar dira. Helburua, gaztetxoei zientziaren gaineko zaletasuna piztea eta talde lana eta sormena bultzatzea da. Internet bidez denez,

gainera, teknologia berrietan trebatzen dira.

Urritik hasi eta apirila bitartean, Ar-mixek proba jarriko die ikasleei, hileroko, eta ikasleek gutxienez bost proba osatu beharko dituzte. Gela bakoitzak bere blogean idatzi beharko ditu proba horren emaitzak eta, aurten, blogik onena ere sarituko dute antolatzaileek.

Probak egoki ebatziz gero, opari

ugari jasoko dute ikasleek. Proba onena egin duen ikasgelak bi sari jasoko ditu hileroko, eta gelaren argazkia Berria egunkariko Mantangorri gehigarrian argitaratuko dute. Olinpiadaren amaieran puntu gehien lortu dutenek berriz, bi egunerako txangoa irabaziko dute.

www.zernola.net web gunearen bidez egingo dira proba guztiak. Bertan aurkituko duzue informazio gehiago.



Ikastaroak

* **UEUren udazkeneko ikastaroen eskaintza** Jendaurreko komunikazioan trebatzeko tailerra; Haur kantak eta jolasak; Euskal ipuinak eta mitologia: ipuin tailerra; Kantua aitzakia: espresio tailerra; Gatazken konponketa: Zeintzuk dira gure aukerak?; Teknologia berriak gaur egungo hezkuntzan; Morfologiako eta sintaxiko ariketak konputagailuaren bidez; Ordenagailuz lagundutako itzulpena: Wordfast eta Plustools. **Non:** Eibarko ikastetxe nagusian, Markeskoan. **Informazio gehiago:** www.ueu.org.

* **Hizkuntza Plangintza on line ikastaroa** **Noiz:** Azaroaren 3tik, 2009ko uztailearen 30era. **Antolatzailea:** EHU eta Asmoz Fundazioa. **Izen ematea eta informazio gehiago:** <http://hiznet.asmoz.org> edota hiznet@asmoz.org.

* **Kultur arteko hezkuntzan aditua** **Noiz:** urritik abendura. **Non:** Bizkaiko Urtxintxa Eskolan. **Iraupena:** 80 ordu teoriko eta 20 ordu praktikoa. **Informazio gehiago:** www.urtxintxaeskola.org.

Lehen Hezkuntzan IKTak lantzeko proposamena egin dute Ikastolek

Ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitzean, 16 urterekin, IKTen arloan izan behar dituzten gaitasunak zehaztu dituzte Emilio Etxabek eta Mikel Etxarrik "IKT curriculuma. Lehen Hezkuntzarako proposamena" izeneko lanean. Curriculumak finkatzen dituen bost gaitasunak garatzeko baliagarri izan daitezke IKTk, eta hori berretsi du Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak egin duen proposamenak. Egileen iritziz, batez ere, curriculumak finkatzen dituen bost gaitasunetatik bi landu daitezke IKTen bidez: komunikatzen ikastea eta ikasten ikastea.

Lehendabizi, Lehen Hezkuntzako kompetentzien markoa definitu dute, eta ondoren, horiek interpretatu dituzte, adin guztietara egokituz. Horren emaitza, zehaztasun handiko dokumentua izan da. Ez zuten programa paralelorik sortu nahi, ordea, eta Txanela proiektuan txerta daitekeen proposamena egin dute, horrela lehendik egiten zen lanari gehigarri bat txertatuz. Ohiko jardueretan txertatuko da IKTen erabilera, eta informatika gelara joan beharrik gabe, ikasgelan hainbat jarduera egiteko aukera izango dute ikasleek eta irakasleek aurrerantzean. Ho-



rretarako, jakina, ikasgelak egokitu behar dituzte eta gela bakoitzean internetarako konexioa duen ordenagailua eta proiektorea egotea aurreikusi dute.

Hori guztia abian jartzeko, irakasleek formazioa jaso behar dute, eta lanean hasi dira dagoeneko. Sei prestakuntza saio egingo dituzte eta ikasturtean

zehar euren ikasgeletan ikasitako guztia aplikatzeko moduan izango dira irakasleak. Aurten 5. eta 6. mailako irakasleekin hasi dira lanean, eta 41 ikastole-tako 131 irakasle ari dira prestakuntza jasotzen. Datorren urtean, DBHn gauza bera egiteko asmoa dute.

Xabier Portugal gogoan

Ikasturte berria hastearekin batera zendu da Xabier Portugal, hainbat ekintzetan parte hartu duen irakasle euskaltzalea.

Euskal hezkuntzaren alde beti agertu izan duen jarrera eskertu nahi dio HIK HASIk. Zinema, telebista... eta oro har, irudiaren mundua izan da haren

pasioetako bat. Askok lagundu digu arlo horretan. Askotan jo dugu Xabierren laguntza eta aholkuaren bila. Eta beti jakin izan du gure eskariei prestutasunez erantzuten.

Guztiagatik, gure eskerrik handiena azaldu nahi dugu.





Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo hilabeteko galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen iraileko eztabadaiak utzi diguna...

>>> Hizkuntza ereduak ebaluatu ondoren, eredu horiek gainditu eta hizkuntza eredu bakarren proposamena dago mahai-gainean EAEn. Eredu bakar horretan euskara izango da ikas-irakas hizkuntza. Horren aurrean, hainbat gurasok beren seme-alaben ikaste hizkuntza erabakitzeke legez duten eskubidea aldarrikatu dute. Kontuan izanik ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitzean bi hizkuntza ofizialak ezagutu behar dituztela, nola ikusten duzu erabaki hori gurasoen esku uztea?

> Gaztelania edo frantsesa, duten presentzia omnipotentea dela-eta, erraz asko ikasten du edozein ikasle nerabegarorako. Eskola guztietan euskaraz ikasteko eta bizitzeko bitartekoak jartzen ez badira, ez da lortuko mugaren bi aldeetan ikasleek bi hizkuntzak menderatzea. *Fermin*

> Ingelesa sartzen ari da derrigorrez, edonon: eskolan, lanean, iragarkietan, abestietan... eta horren nagusitze prozesuak ez du kezkarik sortzen. Euskara bezalako hizkuntza gutxituek, aldiz, badirudi kezka sortzen dutela. *Luis G*

> Nik ez dakit eredu bakarra izan behar duen ala ez. Nire ustea da, Euskal Herrian bizi garenok bertako hizkuntza eta kultura propioak ezagutzeko eskubidea dugula eta gaur egun eskolak ez duela hori bermatzen, ezta helburu horretara gerturatzeko ere. Egindako ikerketen arabera, Haur Eskolek (0-3 urte tartea) izugarritzko eragina dute hizkuntzaren jabekuntzan. Gaur egun, ia haur guztiak 2 urtekin eskolatzen ari direnean, ezin al da plan on bat egin denek 6 urterako gure hizkuntza propioa ezagut dezaten? Hori ongi planifikatzen duten tokietan lortzen dute. Ezin al da hori orokortu? Nork jartzen ditu horretarako eragozpenak? *Olatz*

> (...) Arazoa POLITIKOA da. Gaizki ulertutako politika egitearen ondorioa. Herritarren beharrei erantzun beharrean, alderdiei eta interes partikularrei begiratzen dieten politika okerrean oinarritzen delako. Pertsona eta Herria, Herria eta Pertsona, herritarrak elkarlanean, azken finean. Hortan datza gizartea hobetzeko gakoa! *Maribi*

> Hezkuntzak herritarrak KOHESIONATZEKO balio behar du (...) Gure herriak egin dezakeen ekarpenik onena, arbasoek utzitako ABERASTASUN KULTURALA ondorengoei eguneratua eta indartua uztea litzateke. Eta ekarpen hori ez da Euskal Herriarentzako ondarea soilik, planeta osorako baizik. Euskaldunok, osotasun ikuspuntu horren kontzientzia sendotu behar dugu. Hemengo hezkuntzak horrekin guztiarekin kontsekuentea izan beharko luke. Euskara aberastasuna da, eta hemen bizi garen GUZTION ESKUBIDEA da horren ezagutza. *Fernando*

> Ongi deritzot %60 gutxienez euskaraz izateari, horrela, aukera ematen baitie ikastetxei haien antolaketa hobeto egiteko. Horrekin batera, eta ezinbestean, ikasle bakoitzaren hizkuntz garapena ebaluazio jarraien bidez egin beharko litzateke, amaieran, eskatzen diren emaitzak lor daitezkeen. Prentsaren arabera, Nafarroan ere eredu bakarra planteatzen ari omen da. Euskara eta ingelesa batzuk. Gaztelania eta ingelesa besteek. Nire ustez, bi eredu dira. Eta horien ondorioz, eskolatik denak irtengo dira gaztelania ongi ezagutzen, ingelesa dezente, eta euskara batzuek ezagutuko dute eta besteek, ez. Euskara Nafarroako hizkuntza propioa izanda, ez al dagokigu nafar guztioi hori ezagutzea? *Gema*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> EAEko Hezkuntza Sailak "Euskadin hizkuntza ofizialak eta atzerrikoak ikasteko, irakasteko eta ebaluatzeke markoaren lege proiektua" aurkeztu berri du. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, aldiz, HTI (TIL) edo "Hizkuntzen Tratamendu Integrala" deritzana. Zer iritzi duzue proiektu horien gainean?

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa HIK HASIRI buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu HIK HASIREN berri!

argitalpenak



Ez zait irakurtzea gustatzen. Eta zer?
Pako Aristi
ELKAR

Nemesiok ez du gustuko irakurtzea eta andereñoak zerbait irakurri behar duela esaten dio etengabe, baina behartuta, istoriorik politena ere, itsusi bihurtzen da. Nemesio bere bidea egiten ari da, eta bide horretan, ipuinen magiarekin topatu da... Jokin Mitxele-nak egin ditu irudiak. Liburua zortzi urtetik gorakoentzat da •



Ikaslearen hiztegia
Zenbaiten artean
ELHUYAR

Ikaslearen hiztegia-ren hirugarren edizioa argitaratu du Elhuyarrek. Berrikuntzak ditu honek, ordea, horien artean CD-ROM euskarrian ere plazaratu dutela, papereko edizioaz gain. Bestalde, Euskaltzaindiak egindako aldaketak jaso dituzte lan berrian. 26 euroren truke eros daiteke •



Haur eta gazte literatura 2007. Irakur gida
HUHEZI


MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Haur Liburu Mintegiak egindako gida da, inguruko Udal Haur liburutegietako langile eta hezitzaileekin batera. 2007. urtean argitaratutako euskarazko liburuen artean sailkapena egin, eta gomendagarrienak bildu dituzte, adinaren arabera sailkatuta •



Bat soziolinguistika aldizkaria
67. zenbakia

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Erramun Baxoken omenezkoa da Bat aldizkariaren azken zenbakia. Hari eskainitako lanen laburpenak aurki daitezke ale honetan. Euskal soziolinguistika sarietarako deia ere egin du Soziolinguistika klusterrak Bat aldizkariaren bidez. Bost sari emango dituzte 2008an •



Tantak aldizkaria
39. zenbakia
EHU

Aldizkariak azken alean bildu dituen artikulua hauek dira: Hezkuntza-eskubideen eremuko Europa mailako azterketa erkata; Hezkuntzaren soziologia Frantzia; Hezkuntzari soziologiatik begira; Zenbakizko pentsamenduaren sorrera psikologia paradigma ezberdinetatik; eta, Euskadiko ikastetxe publikoetako eskola zuzendaritzarako sarbidea •



Antzinako euskal matematikaz zenbait burutazio

Fernando Bustillo, Roslyn M. Frank,
Alfonsito Martinez Lizarduikoa
GAIK

Gure arbasoek, Cromagnon gizakiek, animalien hezurretan egindako aztarnak aztertu dituzte liburuan, baita zenbakizko kalkuluak egiteko erabili izan ziren beste tresna batzuk ere. Euskaldunok kontatzeko dugun sistema hogeitarrez ere ari da liburua •

... nora joango gara?

ITSAS GELA Pasaian

Tarte batez marinel izateko aukera

Joan den udan batek baino gehiagok jango zituen marmitako goxoren bat edo sardina erreak, ziur. Baina, mahai aurrean esertzean, gutxitan pentsatzen dugu jaki horiek guregana iristeko beste pertsona batzuek zenbateko lana egin duten. Helburu hori du, hain zuen ere, Itsas Gelak, arrantzaleen lana eta itsasoko bizimodua eta bizitza jendeari ezagutaraztea, baita txikienei ere, gaztetatik itsasoa-rekiko maitasuna eta ingurumena errespetatzearen aldeko jarrera izan dezaten.

Duela bost urte abiatu zen Itsas Gela sortzeko egitasmoa, baina duela hiru urte bisita daiteke Mater ontzia. 33 metroko luzera duen Getariako baxura ontzia da Mater ontzia, egurrezkoa. Baina jabeek, 12 urtez Kantauri itsasoan eta Atlantikoan lanean aritu ondoren, itsasontzi handiagoa egin nahi zuten, metalezkoa, eta ontzia hondoratzeko asmoa zuten. Orduan, Itsas Gelakoek hartu, jendea bertara sartzeko egokitu, hezkuntza eta ikerketarako itsasontzi eskola bihurtu, Pasai San Pedrorra eraman, eta bertan zabaldu zituzten Mater ontziaren ateak.

Itsasoarekiko begirunea, babesa, ikasketa eta, batez ere, gozamina sus-tatu nahi ditu Itsas Gelak. Eta gertura-

tzen direnek itsasoaren egoera, arrantzaleen bizimodua eta ohiko arrantza leku eta teknikei buruzko informazioa jasotzea nahi dute arduradunek.

Izaskun eta Sonia aritzen dira bertan lanean. Ikasle talde ugari hurbiltzen zaizkie, eta askotariko jarduerak eskaintzen dituzten arren, eskari handiena duena bisita didaktikoa da, itsasora hurbiltzeko baliabide ezin hobea baita. Horrelako itsasontziek nola lan egiten duten azaltzen dute, Materren aritu ziren arrantzaleek nolako arrantza teknikak erabiltzen zituzten; sarea, kanabera... Eta jakina, itsasontzian egote hutsa abentura handia da txikieneztat.

Arrantzaleen bizitza eta lana

Lehenik, brankan aurkezpen orokorra egiten dute, eta itsasontziko

arauak aipatzen dituzte: ezin da korrika egin, ezin da karelera igo, eta kapitainak esandakoa bete behar da, hark agintzen baitu. Taldeak handiak direnean, bi edo hiru azpitaldetan banatzen dira, ontzia ongi ikusteko, eta txandaka joaten dira ontziaren zatiak ezagutzen. Ondoren, talde batek zubia eta bertako tresna bakoitzak nola funtzionatzen duen ikusten du. "Esaterako, lema edota sonarra zer diren azaltzen diegu; eta azken horrek, arrainak atzemanez gero, jo egiten duela... Ondoren, sukaldera joaten gara", esan digu Izaskunek. Beste talde bat gainaldean egoten da, eta arrantzan erabiltzen diren hainbat teknika ikusten dituzte. Horrekin batera, Mater itsasontzian, baxurako ontzi guztietan bezala, sarea ababorretik botatzen dela ikusten dute,





bertan baitituzte sarearen sokak igotzeko makinak eta sarea igotzeko aladorea. Talde horrek popako sotoa ikusten du, eta bertan, itsas mundura hurbiltzeko jolasa egiten dute. Azken taldeak bideoa ikusten du brankako sotoan. Izaskunek azaldu digunez: "Sei minutuko bideoa ikusten dute. Sarearekin nola lan egiten den azaltzen du bideoak, eta nola sartzen dituzten sardinak edo arrain txikiak haztegiatan, ondoren, hori beita moduan erabiltzeko. Beita zaintzea zeinen garrantzitsua den ere azaltzen dugu; arrantzaleek jaten eman behar diete arrain txikiei, eta zaindu egin behar dituzte, hil ez daitez; bizirik egon behar dute, gero, amuetan jarri, eta atuna edo hegaluzea arrantzatzeko. Atuna edo hegaluzea harrapatu ondoren, hozkailuan nola sartzen duten ikusten da, eta gaur egun mahaia eta telebista dituztela baina, garai batean, arraina, haiek dauden leku horretan bertan gordetzen zela esaten diegu".

Taldeek itsasontzian lo egiteko aukera ere badute; egunean zehar Itsas Gelaren programaren barnean dauden jarduerak hautatzen dituzte; eta ondoren, gauean, Mater ontzian egiten dute lo.

Ikasleek eta Mater ontzira gerturazten den orok, tarte batez marinel sentitzeko aukera du, edo behintzat, lanbidea gertuagotik ezagutzeko. Itsasoa zaintzea eta maitatzea da Itsas Gelaren helburua, etorkizunean geure ingurumenaren egoera hobea izan dadin.

ITSAS GELA

Euskadi etorbidea z/g
(Ciriza eraikina)
20110 PASAIA
Telefonoa: 619 814 225
Faxa: 943 490 831
www.itsasgela.org
itsasgela@hotmail.com



Oharrak:

- Jarduerak taldearen beharretara egoki daitezke, eta elkarren osagarri dira.
- Hainbat mailatara egokitutako unitate didaktikoak dituzte.
- Jarduera guztiak euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke.
- Taldea gehienez 40-45 lagunekoa izatea komeni da.
- Bost urtetik aurrerako haurrak hartzen dituzte.
- Prezioak eta iraupena aldatu egiten dira jardueraren arabera, baina prezioak hauek dira: bisita didaktikoa 3 euro, eta lantegiak 4 euro.

Jarduerak:

> Bisita didaktikoa

Euskal arrantzaleen bizimodua, arrantza tresnak... ezagutzeko aukera ematen du.

> Itsas lantegiak

Itsasoarekin harremana duten gaiak era praktikoan lantzeko aukera.

Itsas bioaniztasuna

Unitate didaktikoak: Itsasora hurbilduz - Itsasoko bizitza aztertzen - Arrainen mundua - Itsas ekosistemak - Itsas botanika - Itsas zoologia

Itsasertza

Unitate didaktikoak: Gure itsasertza ezagutzen - Itsasertzaren erabilera eta kudeaketa

Arrantza

Unitate didaktikoak: Arrantzan ikasten - Arrantza industria - Arrantza teknikak - Arrantza baliabideen kudeaketa

Itsas historia eta itsasaketa

Unitate didaktikoak: Boga-boga marinela - Marinela egun batez - Gizakia eta itsasoa - Euskal Herriko itsas historia - Itsasketara sarrera - Pasaiaiko itsas historia

Ingurumena eta kutsadura

Unitate didaktikoak: Gizakia eta ingurumena - Gure itsasoaren ingurune osasuna

Ozeanografia eta klima

Unitate didaktikoak: Itsasoaren mugimendua - Meteorologiari sarrera - Ozeanografiari sarrera

> Itsasora irteerak

Lantegien edukiak lantzeko aukera ematen du, itsasora irtetearekin batera.

> Kostako txangoak

Hainbat ibilbideren bidez ingurua ezagutzeko aukera ematen du.

> Txango motzak

Pasaia historikoa - Platako itsasargia - Pasaia itsastarra - Kala Bursa ezagutzuz

> Txango luzeak

Jaizkibelgo ingurumena - Uliá didaktikoa

> Itsastar gaua

MATER ontzian lo egiteko aukera ematen du. Gehienez, 25 pertsonako taldea.

atzeko atetik



Ander LIPUS

KOMERIANTEA

KOSER

8. mailan nintzelarik, antzerki obrak idatzi, zuzendu eta antzezten hasia nintzen jada. Behin, eskolako zuzendariak zera esan zidan: *ke no maduraba komo los demas txikos*, umeegia nintzela eta hobe zela kurtsoa errepikatzea. Ikasketak, arrakastaz baino, arrastaka eraman nituen. Etorkizunean “zerbait izateko” zerbait ikasi behar, eta nik, aktore izan nahi nuen.

Nire gurasoentzat, ordea, txorakeriak baino ez ziren. Hala ere, COU eta selektibitate gaingaitzen banituen, arte dramatiko ikasketak egin ahal izango nituela esan zidaten. Gurasoak eta irakasleak konbentzitzeko, bakarriketa bat prestatzeari ekin nion, Aitor Zuberogoitia, markinako lagunak idatzia: ABSURDOARI BURUZKO GOGOETAK. Arrakasta izugarria izan zuen. Testu aldetik, memorizatzeko orri asko ziren, baina gai nintzela erakutsi nien. Eta baita interpretatzeko ere!

Koser i kantar

Egun batez, eskolako aretoan ikasle, irakasle eta guraso guztiak batu gintuzten. Bilbotik etorri ziren “espertoak”, Unibertsitateari buruzko azalpenak eta informazioa ematera. Egun inportantea zen. Gure etorkizunaren nondik norakoak entzun behar genituen. Karrera oparoak. Enpresariales, deretxo, medizina, psikologia... guztiendako zuten zerbait. Txostenak. Estatistikak. Hitzordua, eternala izan zen. Benetako ardi beltza sentitu nintzen. Ama, alboan nuen, umore bortitzez, aieneka!

Bukatu zenean, nire aita eta ama, irakasleak, “espertoak” eta ni gelditu ginen. “Espertoek”, bi orri kutre eman -antzerkiari buruz prentsan azaldutako artikulua baten fotokopia eta helbide bi- eta zera esan zidaten: *Lo sentimos mucho pero no podemos informarle de gran cosa*.

IKANTAR

MUNDOPOLSKI, ERREBOLTAREN ZIABOGA-ko pasarteak:

Mundo: Hona hemen dragoi iraultzailearen istorioa. Kezka hura arraro samarra zen dragoi batentzat. Etixerako bidean, gogoeta egin zuen gure dragoiak, ez baitzekien etxean nola hartuko zuten. Baina bazkarian, behingoz esatea erabaki zuen: “Familia... bonbero sartuko naiz”.

Mika: Bonbero? Baina dragoiek sua botatzen dute, nola izan liteke dragoi bat

bonbero?

Mundo: Dragoi normal bat, dragoi estandar bat, draconis vulgaris bat ezin da inoiz bonbero izan, iskanbila litzateke, absurdua, kimerikoa... Baina gurea ez da dragoi normala, ez da dragoi estandarra, are gutxiago draconis vulgarisa, gurea dragoi iraultzailea da.

Mika: Eta dragoi iraultzaile bat, bonbero izan daiteke?

Mundo: Lasaitasuna eta elikagai aproposekin, bonbero ona izatea lor dezake. Baina, hala ere, ez da inoiz benetako dragoia izango, beste dragoiek traidorea dela esango dutelako, eta autentikoa ez dela, eta ez diote utziko haien etxeetan bizitzen, ezta haien janaria jaten, ezta haien liburuak irakurtzen, ezta haien komunetan kaskatzen ere.

Mika: Hori duk sufrimendua hori!

Mundo: Inork ez du esan dragoi iraultzailea izatea erraza denik. Dragoi iraultzailea izateko 3 P-ak behar dira: palorea, palentria eta, batez ere, potroak.

Mika: Eta pailazoa izateko, gauza asko behar al da pailazoa izateko? Beharrezkoak ote dira balorea, balentria eta potroak pailazoa izateko?

Mundo: Pailazoa izateko peluka galant bat besterik ez duzu behar, bestea da... coser y cantar.

Mika: Nik ez dakit josten.



Lehen jaunartzea egiteak duen kostua ezkontzek dutenera gerturatzen ari da. 25 gonbidaturentzako ospakizun batek 1.200 eta 5.300 euro bitarteko kostua izan dezake, menuaren, jantziaren eta oparien arabera.

Iturria: Consumer aldizkaria, 120. zenbakia.

EHIN ABENTURARI
COMIENZA LA AVENTURA

KOSMODISEA

08-09

ANIMA ZAITEZ!

Kosmodisea 07/08: 35 ikastetxe,
128 talde, 1103 ikasle, 77 irakasle

**IDEIA-JASA
LEHERTZEAR
DAGO**

Irailaren 22tik aurrera



**KOSMODISEA III
EGUTEGIA**

Izen ematea: Irailetik aurrera
Ideia-jasa: 08.09.22 - 08.10.31
Entrenamendu fasea: 08.11.03 - 08.12.01
Planetak:
- Fono: 08.12.01 - 09.01.23
- Ikono: 09.01.26 - 09.03.06
- Mito: 09.03.09 - 09.04.10

+ info:

www.kosmodisea.net

900 840 842

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuaren ekimena, hezkuntza sistema ez unibertsitarioan kultura ekintzailea eta digitala sustatzen dituen.



GIPUZKOA



Aldundiko Foru Aldundia
Dirección Foral de Gipuzkoa



Bestelako eskola posiblea egiteko



ALBOAN

www.alboan.org/hezkuntzamaterialak



Laguntzailea:



Donostia Foru Aldundia

Padre Lojendio, 2 - 48008 Bilbao - Tel. 944 151 135 - Fax 944 161 938 - alboanbi@alboan.org
Avenida Barañain, 2 - 31011 Iruña - Tel. 948 231 302 - Fax 948 264 308 - alboanna@alboan.org
Ronda, 7, 4º I - 20001 Donostia - Tel. 943 275 173 - Fax 943 320 267 - alboanni@alboan.org